

Xaho eta Bigarren Errepublikaren Baionan

Arbelbide Mendiburu, Xipri¹

Bigarren errepublika sortzearekin, Xahok zuen Baiona bildu Errepublikaren alde eta hori hiru urratsetan. Bera herriko kontseiluko ianez, lehenik auzapeza, gero Harispe jenerala soldadoen buru izanez, armada. Azkenik Eliza, erretoraren ganik ardietsirik meza nagusi bat katedralean.

Giltza-Hitzak: Errepublika. Baiona. Askatasunaren zuhaitza. Apaiza. Hiribarren. Masoi. Hauteskundeak. Dindaburu.

En 1848 lors de la création de la seconde république, c'est Chaho qui réunit Bayonne en faveur de la République et ce en trois étapes. Tout d'abord, le maire (il était conseiller municipal), puis l'armée (Harispe étant à la tête des soldats) et enfin, l'Eglise, en demandant au curé de célébrer une messe solennelle à la Cathédrale.

Mots-Clés : République. Bayonne. L'arbre de la liberté. Prêtre. Hiribarren. Franc maçons. Elections. Dindaburu.

Cuando se inició la Segunda República, Chaho unió Bayona a favor de la República. El proceso se dio en tres pasos. Primero el alcalde, Chaho estaba de consejero del municipio. Más tarde consiguió poner a su favor la armada del general Harispe. Finalmente, consiguió atraer a la Iglesia, logrando que el párroco diera una misa mayor en la catedral.

Palabras Clave: República. Bayona. Árbol de la Libertad. Sacerdote. Hiribarren. Masones. Elecciones. Dindaburu.

1. Eusko Ikaskuntza. 51 quai Jauréguiberry. 64100 Bayonne. E-mail : xipriarbelbide@free.fr

Xaho gorenean izan da bigarren errepublikako urteetan: Baionan, Ipar-ekialdeko guardia nazionalako batallunaren komandante bozkatu zuten bere lagunek²: bere batalluneko 710 gaurdientarik 405en bozak izan zituen. 2.123 guarda nazional baziren Baionan³, Herriko kontseiluan sartu zuten Baionesek. Atarratzeko kontseilari nagusi izan zen. Horiek 1848an berean. Eta ehun bozek egin zuten ez baitzen deputatu pasatu 1851an.

Nihaur kasetari izanez, iturri nagusi izan ditut garai haietako kasetak. Bazen *L'Ariel, le Courrier de Vasconie gero le Républicain de Vasconie* deituko zen Xahorena (1844-1852.) 350 ale botatzen zituen. Ez baitzen gaizki. 1852an desagertuko zen Inperioaren sortzearekin Xaho hegoaldera erbesturatuko zutelarik. Lamaignèrek inprimatzen zuen eta egoitza Victor Hugo karrikako 40an zeukan. Astekari bezala sortua, egunkari bilakatu zen eta gero, astean hiru aldiz agertu. Ledru Rollinen alde bozkatzera deitu zuen. Igandetan euskaraz agertzea erabaki zuen, baina bi aldiz baizik ez zen gauzatu xedea. Iduriz Paris-ekoa zen *Le Pamphlet* kasetak artikulua ironiko bat atera zuen euskarazko ale horretaz⁴.

Bazen ere *l'International de Bayonne*, Dacosta juduak sortua (8/1847-11/1851). Baionako burjesena. Asteart, ostegun eta larunbatetan agertzen zen. 600 bat ale saltzen zuen. Ordu arteko *Le Phare de Bayonne*-n (1/1840-8/1847) segida hartu zuen eta Napoleonen alde bozkatzera deitu. Parisek zuela Frantzia bortxatu errepubika onartzerat idatzi zuen orduan: *La dictature d'une ville d'un million d'habitants qui impose la République à 34 millions de citoyens*⁵. Estadoak debekatu zuen liburu bat ere agertu zen titulu horrekin: *La dictature de Paris sur la France*⁶.

La Sentinelle de Bayonne (11.8.1831-30.9.1848) errepublikarra, Vauzy zelarik honen buru. Victor Hugo karrikako 43an zuen egoitza. Jacques Laffitte bankeroaren diruari esker sortu zuen Jean Lamaignèrek. Lamaignèrek inprimatzen zuen, *l'Ariel* bezala. 10.000 libe-rako izuna bildurik, 1848ko buruilean gelditu zen eta, *L'Eclaircur des Pyrénées*-k hartu zuen segida

L'Eclaircur des Pyrénées, (28.10.1848-12.1851) Rouy-k Paristik etorrarazi Capo de Feuillede-k sortua. Gero Lamaignèrek hartuko du. Lamartinen alde bozkatzera deitu zuen. Astelehenetan ez bada, egun guzietan agertzen zen. Cuzacqek deitzen du: *Le journal bayonnais des grands bourgeois de chez nous, les Lamaignère*. 600 bat ale saltzen zuen.

Le Journal du Peuple (7.5.1848-7.4.1849) Baionako suprefeta izendatua izanen zen Rouy-k sortua 1848ko hauteskundeei buruz ; errepublikatzalea zen. Ledru Rollin-en alde bokatzen deitu zuen. Rouy *l'Eclaircur*-erat pasatzearekin geldituko da. Euskarazko artikulua eskatu zituen norbaitek. Baia izan zen, baina neurri batean, frantsesa jakin behar baitzuten denek : biga ikusi ditugu⁷.

2. *La Sentinelle* (hemendik goiti : S) 1848.5.16, *Ariel* 1848.5.16.

3. S 1848.4.11.

4. *Ariel* (hemendik goiti : Ar) 1848.8.1.

5. *l'International* (hemendik goiti : Int). 1848.11.18.

6. *Le Mémorial* (hemendik goiti : Me) 1848.12.26.

7. *L'Eclaircur* (hemendik goiti : Ecl) 1848.6.18 = 7.9.

Bazen ere Pabeko *Le Mémorial*, gobernuaren aldekoa, hau edozein izan zedien, barne aldeko berrien jakiteko orotan hoberena⁸. *Le journal le plus lu au Pays Basque*, berak idatziaren arabera. Beste horiek Baionan mugatzen ziren kasik. Euskarazko artikulu bat ere ikusi dugu honetan.

Parisen bazen *L'humanitaire*, iraultzale errabiatua. Noizbait ohartu ziren poliziak sortua zuela oposizioaren ikusmoldea plazaratzeko, jendek onartu ez zezaketen moldean⁹.

1. ORDUKO GIROA

Hona lehenik, urte haietako kasetek nolakoa erakusten duten gure herria. Iparraldean 150 bat mila jende bizi zen. Baionan, herrikoetxe berria (oraiko hori) 1842an estrenatua izana zen bai eta Santizpiritako zubi berria¹⁰. 37 ikasle ziren kolegioan, eta 'école primaire supérieure' bat sortzea erabaki zuten, 100 bat ikaslerentzat, 3 irakaslerekin¹¹. 940 bat eskola ziren departamenduan, 46.500 haur eta 588 errientekin : 80 bat haur klase bakoitz bana beste beraz!¹² 43 gaztek pasatu zuten batxiler ikerketa eta horietarik 21ek eskuratu diplôma¹³. *Ecole Normale* errienten eskolan sartzeko 59 gazte agertu ziren eta 22 hartu zituzten. Baionako herriko etxean gela bat bazen liburutegiarentzat, bainan hutsa¹⁴! Urte hartan zuten, Paben bildu errienten ordezkariak Kontseilu Nagusiari eskatu, Hiriart inspektoreak idatzi euskal gramatika bai eta euskara-frantses eta frantses-euskara hiztegiak publikatzeko dirua¹⁵. «Eskola urriker denentzat» izanzen da gorrien eta bereziki Xahoren eskakizuna¹⁶.

Baionan berean 17.000ko bat jende bazen, gehi 7.700 Landesetako zen Santizpiritian, bost milako bat Hazparnen, 3.500 Biarritzen, 2.800 Donibane Lohizunen, 2.700 Bidaxunen, 2.500 Baigorriin, 2.200 Uztaritzen.

Larrañek auzia galdu zuen Xiberoko herri-elkargoaren kontra, mendien jabegoaz¹⁷. Otso ihiztariak aipu dira Oztibarren¹⁸. Baionan Itsas ontziak egiten ziren Aturri bazterrean¹⁹. Lauga-tik 800 tonako bat atera zen egun haietan²⁰. Ontziak portuan sar arazteko 50

8. Me 1848.7.27.

9. Int 1848.5.9.

10. Claude Duhau, Maires et édiles Bayonnais, 1998, 17 or.

11. *Journal du Peuple* (hemendik goiti JdP) 1848.12.13.

12. E 1848.12.6.

13. Ar 1848.8.22.

14. Ar 1848.6.27.

15. Me 1848.11.29.

16. Ar 1848/3/28, S 1848.3.2.

17. S 1848.6.29.

18. Ar 1848.4.6.

19. JdP 1848.12.13.

20. Int 1848.5.29.

piloto baziren Bokalen²¹. Otsailean 15 ontzi sartu ziren eta 17 jalgi²². Orrazegile bat bazen Vieille Boucherie karrikan²³. Txokoleta egileak, hala nola Biraben Pannecau karrikan²⁴. Limonairek pianoak egiten zituen²⁵. 2.000ko bat zapatatzen bazen Hazpamen²⁶ Garai haietan ere beti gazte agertu nahi : *Chantal* urari esker ez zen gehiago ez bilo, ez bizar xuririk!²⁷ Farmazia on bat salgai baitzen kantonada batetako herriburan, 7.000 libera eskatzen zuten²⁸.

Ezpeleta Basaburuan urjauzi batek itzul arazten zituen hirur erroten bidez martxa zen porzelana fabrika bat; honi lotua zen beste bat Santizpiritan eta lurzuriak baziren ere Ezpeleta, Luhuso eta Lekomen. 80.000 liberetan eman zituzten salgai denak²⁹. Gatzagiak baziren Beskoitzen³⁰ eta horietarik bat, Teileriakoa, saldu zen 70.000 liberetan³¹. Bai eta Milafrangan³². Biarritzen baziren itsas-urbero mainargiak³³. Kanboko uretan ibiltzen zen jendea³⁴. Baionan salgai eman zuten Lamaignèren ehuletxe modernoa, iduriz tresna berriak ez zitzaizketelakotz paga³⁵. Ez dakit zetarik egiten zen bainan Saint Etienne auzoaldean 22.000 mazuztondo (murier) baziren³⁶.

Langabeziaren kontra sortu « ateliers nationaux » haien barne ote zen? Donibane Garaziko fortifikazioak zabaltzeko, 7 hektara desjabetu zituen, Etxahun bertsularia auziperatu zuen Deffis Donapaleuko jujeak³⁷. Aturri bokalean ezpondak egiteko milioi bat eta erdi eman zuen estadoak.

Portuko aterbeetan baziren 71 tona tabako, 32 burdin, 23 sukre, 15 kakao eta 8 kafe, larrienak baizik ez aipatzeko³⁸, beharrena beraz, iduriz, tabakoa! Batzutan kontraba-

21. *Ariel* 1848.8.10.

22. *Int* 1848.3.4.

23. *Int* 1848.25.5.

24. *Ecl* 1848.12.6.

25. *Ar* 1848.7.11.

26. *S* 1848.11.9.

27. *Int* 1848.11.25.

28. *S* 1848.4.25.

29. *S* 1848.6.15, 8.26.

30. *Int* 1848.10.14.

31. *S* 1848.6.23.

32. *Me* 1848 11.22.

33. *S* 1848.4.1.

34. *S* 1848.6.8.

35. *S* 1848.8.29.

36. *S* 1848.7.29.

37. *Int* 1848.3.7.

38. *Int* 1848 4.4.

dakoak, ofizio hori ere baitzen! Salgai eman zituzten Kontrabandistek hartu 22.000 zigarro eta 4 barrika arno³⁹.

Baionako buxeta 293.000 liberako zen urte horretan⁴⁰. *Comptoir d'Escompte* aurrezki kutxa sortu zuten, 600.000 libera Estadotik, 600.000 hiritik eta 600.000, hiru mila bazkideetarik, bakoizak 200 libera⁴¹.

Pilota partidak jokatzeko ziren hala nola Hazparneko hau, alde batetik Dominique Harriague, Pierre Larramendi, Laurent eta Jerome Hiriart hazpandarrak eta bestetik Gaskoina Hazpandarra, Beñat Baionako eiherazaina eta bi uztariztar⁴². Zortzi pilotarirekin luzekoa partidak ziren.

Baiona eta Biarritze artean karrosak baziren oren erdi guzietan. Bai eta Baionatik Donibane Lohizunerat⁴³, Gazteizera eta Bilbora⁴⁴. Treinbidea La Testen gelditzen zen, baina handik eta Baionara jin zitekeen «biziki fite», itsasoz, goizean abia eta arratsaldean heldu, «Gaulois» steamer-ari esker⁴⁵. Akizeko bestetara joan zitekeen Xavier untzian, Aturrin barna, astelehenean abia arratsaldeko biak laurden gutitan, itzuli astezkenean goizeko 7tan⁴⁶. Lekornen, Mentaxuriko patarretik eta Heleta Etxarterateko artean obrak egin zituzten bidea hobetzeko, 2km, 637m, 95 zentimetrotan⁴⁷. Izari ongi hartzen bazekiten! Heraustako patarra ere konpondu zuten Biarritzen⁴⁸.

Beste negozio mota bat : xorteak soldado izateko izendatzen baldin bazintuen, ordaina aurkitzen zizun « Beauté » aseguru etxeak, 800 liberetan, Baionako Bourgneuf karrikan⁴⁹. Ameriketarako emigratio hasia zen eta *urrearen oldarra*⁵⁰ aipu da.

Familia hazteko, egunean 3 libera behar omen zen gutienez⁵¹. *Le Mémorial*-en arabera eguneko soldata, 1,5 liberakoa zen Paben⁵². Errienteen soldatik apalena, 600 librerakoa.

39. Int 1848.3.21.

40. S 1848.9.14.

41. Int 1848.4.15.

42. JdP 1848.7.22.

43. Int 1848.11.5.

44. Int 1848.10.14.

45. S 1848.8.15.

46. Ar 1848.

47. S 1848.6.10.

48. Ar 1848.7.27.

49. Int 1848.2.17, S 1848.3.2.

50. Me 1848.12.29.

51. Int 1848.6.10.

52. Me 1848.4.12.

urtean⁵³. Zaldi baten prezioa, 600 libera⁵⁴. 100 pinta ogi bihik 15 libera balio zuen, artoak 8,5, ogiak 0,27 kiloa, araxekiak 0,7 eta ardikiak 0,8⁵⁵. Lan eguna 11 orenetakoa zen⁵⁶.

Postak ere zabaltzen ari ziren eta urte hartan zaldiak aldatzeko bedera trikaldi sortu zuten Beskoitzen eta Bidaxunen⁵⁷. Baigorri eta Garazin egunero izan zuten posta⁵⁸. Tinbrea 20 zentimo gostatzen zen⁵⁹.

Apezpikuak, lehendakariak izendatuko zituela erabaki zuten, bozkaz hautatu zerrenda batetarik. Ez zuten orain finkatua nola bozkatuko ziren!⁶⁰ Sail berean, erretorak ez nola nahika aldatzeko araudiak ere finkatu ziren: ez apezpikutegian, baina Parisko legebiltzarrean!⁶¹ Napoleon I-aren konkordatuko ñabardura zenbait.

Maubecq karrika behean eskuinetarik, bota zuten Jondoni Joaneren zaldunen kapera eta gizahezur ainitz hatzeman : denboran, jendeak hor ehortzi ziren⁶². Hazaro ondarrean zibilean ehortzi zuten 17 urteko mutiko bat, apeza errefusatu zuelakotz hil zorian. Kasetek gaizki hartu zuten, oinaze ikaragarrietan hila eta barkatu behar ziotela. Auzapeza bere axuanterekin izana zen katedraleko erretoraren ikusten⁶³. Sorgin auziak ere izan ziren Bankan : hiru emaztek beste bat makil eta eskalapoin ukaldika jo zuten, baizik eta sorgina zela, hark zuela eriarazi urte hartan ohatua zen mutiko bat. Kasetaren komentarioa : *Tout le monde doit être protégé contre l'arbitraire et la solidarité, surtout nos sorcières qui n'ont d'autre tort que d'être vieilles, dépenaillées et amaigries par la misère*⁶⁴. Sorginak agertu zieren ere Ortesen⁶⁵ eta Garlinen (emazte bat surat bota zuten sorgina zelako akusapean)⁶⁶.

Jandarmek bazuten lan: hilabete batez, pasaporterik gabeko 42 kanpotiar gelditu zituzten, 41 eskale, 7 ohoin lapurtzen ari, 32 presuna auzitegien manuz eta beste 4 arrabots soberaxko egiten zutelakotz gauaz. 116 prozeura eman zituzten bestalde⁶⁷. Biarritzen,

53. Me 1848.7.8.

54. Me 1848 8.5.

55. Ecl 1848.12.16.

56. S 1848.2.28.

57. Int 1848 3.23.

58. Me 1848.3.20.

59. Me 1848.12.30.

60. S 1848 6 27.

61. S 1848.12.14.

62. Ecl 1848.7.11.

63. Ecl 1848.11.24.

64. Me 1848.6.4, 6/20.

65. Ar 1848.7.22.

66. Me 1848.4.8, Ar 1848.7.22.

67. S 1848.5.9.

oilo, ahate eta su-egur lapurtzen zituzten⁶⁸. Baionako soldado bat 5 urte galeretara kondenatu zuen armadako auzitegiak, aintzindari zenbait iraindurik. Ez zen irrikik ikusten duzuen bezala eta ez da harrizko intsumitu aintz baldin bazen⁶⁹.

Kanpotiarrak ikusten ziren hemen gairi: Abdel Khader « preso » eman zuten Pabeko jau-regian, bere familia eta 40 zerbitzariekin⁷⁰. Hegoaldetik ehunka etortzen ziren karlistak. 110 sartu ziren Santa Garazin⁷¹. 150 Alduden⁷². 14 harma hatzeman zituzten Etxeto Aldudarraren belarmeta azpian⁷³.

Hegiluz Arrokiagako senar emazteak erail zituzten Mauleko merkatutik sartzean⁷⁴. Etxahunek kantu bat egin zuen gai horretaz, bai eta Xahoren eta ondoko urtean, Renaudren alde⁷⁵.

*Botzak eman itzazie, praubik dutiener maite
Ezi hurak izanen dira jente xehiaren alte
Xaho depütatü baledi hura hen alde lizate*

Esklabogoa debekatzen zuen dekretua atera zuten:⁷⁶ bi hilabeteko epea baitzuten aplikatzeko, laburxko zela zioten zenbaitek⁷⁷. Chateaubriand uztailean hil zen⁷⁸.

Etxeak ez ziren beti teilaz estalgiak: hangar bat erre zen Gotañen, lastozko teilatuari sua loturik⁷⁹. Urdiñarben, Bidau eihera oholez estalgia zen, bai et Ligí Balañea, honen iratzetegia ohola eta lastoz⁸⁰. Larzabal Aroztegia harri lauzez⁸¹. Urrustoi Garatea teila eta oholaz, Mitikile Karrikiria teila eta lastoz⁸².

Urte haietan hasi ziren, Mozeroletan ikatzetik atera gazarekin, karrikak argitzen⁸³.

68. Ecl 1848.11.2.

69. Ecl 1848.11.5.

70. Int 1848.4.4.

71. Me 1848.10.7.

72. Me 1848 7.17.

73. Me 1848.10.6.

74. Int 1848.11.14.

75. Xipri Arbelbide, Piarra Topet Etxahun, bertso bilduma, Elkar, Donostia, 1987 120, 142 eta 164 or.

76. Ar 18487.5.

77. Int. 1848.5.9.

78. Int 1848.7.8.

79. Ecl. 1848.5.11.

80. S. 18485.15.

81. S 1848.5.16.

82. Me 1848 1848.5.18.

83. Ar 1848.10.23.

Bi arrondizamendu bagenituen, Maule eta Baiona. Prefetura Paben. Akize, Maule eta Baionako arrondizamenduak bildu behar zituen *Gaves Adour* departamendua eskatu zuten; landestarrak ziren eskale⁸⁴. 1836an jadanik mila jendeke izenpetua zuten eskaera bat alde bererat⁸⁵. Ez zezaketen ulertu zergatik ez zen oraino onartua, *remis à plus tard*⁸⁶. Paris partida zuten, denen manatari. Dezentralizazio nahi zuten. *Le premier besoin des départements est la décentralisation, la destruction de cette plaie qui fait de la province une île, un paria et de Paris, un tyran, un dictateur absolu, tout puissant*⁸⁷. Ttantly berri bat, beherago aipatuko dugun semaforoarena.

Ordukotzat ez ziren soberakinik akomeatzen Biarnesekin: Pabeko akademia kendu nahi izan zutelarik, Baionako kontseiluak ez zuten Paberen alde bozkatu ez zelakotz hemengo arazoa: *intérêt trop modique au rétablissement de cette académie*⁸⁸.

2. ERREPUBLIKA

Bainan jin gaiten Xahoren ganat. Bigarren Errepublikaren buru eta arima izan zen Baionan, ez administrazioak, ez herriko arduradunek ez baitzuten erhi tinttilarik mugitu alde horretara.

Rien de ce qui devait être dit n'a été dit, rien de ce qui devait être fait n'a été fait dans Bayonne pendant deux jours. Une page noire a été ajoutée à l'histoire d'ailleurs si brillante de la ville qui fut longtemps l'une des républiques Cantabres⁸⁹.

1848an, otsaileko 24an 2. errepublika sortu zelarik Parisen, suprefetari leporatu zioten ez zuela Parisko gertakarien berririk eman berehala: Pabera igorri zuten berria 9tan eta Baionan berean jakin arazi 5 oren eta erdi berantago!⁹⁰ Garai haietan semaforoaren bidez zabaltzen ziren berriak. Baionakoa Maubecq karrikako eskuinean zen, gain haietan. Zuzendaria, Ressayre⁹¹. Errepikagailu bat bazen Bidarten⁹². Pabeko prefetak hemendik jakiten zituen beraz berriak, zaldiz igorririk⁹³.

Berriak suprefeturara joaten ziren eta beraz egun horretan ez ziren, jin eta berehala zabaldu bainan bakarrik arratsaldeko hiruak laurden gutitan. Xahok bere kasetaren bi gehigarri atera zituen jendeak argitzeke, 25 eta 26an. Hor ikusten dugu nola 24a arra-

84. Ecl 1848.11.9.

85. Ar 1848.2.28.

86. Int 1848.10.14.

87. Int 1848.11.30

88. Ecl 1848.4.11.

89. Ar 1848.2.24.

90. S 1848.2.26, supplément.

91. Me 1848.2.20.

92. S 1848.6.24.

93. S 1848.6.27.

tsaldean plazaratu agerian, suprefetak dioen barrikada zenbait izan bazen ere Parisen, guardia nazionalak laratza pikoan eman zuela.

Depuis minuit la tranquillité est entièrement rétablie. Toutes les mesures sont prises pour empêcher le retour du désordre. Dans la soirée d'hier des barricades assez nombreuses ont été élevées par les émeutiers. Elles ont été sur le champ détruites par la garde nationale et les troupes de ligne⁹⁴.

Egia besterik zen.

Parisen, gobernukide berri guziak framazonak ziren ez bada Lamartine. Bainan garai haietako framazonak ez ziren oraikoak. Baziren igande guziez elizan ibiltzen zirenak. Baionako auzapez izendatua izanen den Dubrocq noiz nahi apezikutegian zen. Oraiko kato-likoetan PPtik Batasunera badiren bezala, EAJkoetarik pasatuz, garai haietan denetarik bazen framazonetan. Napoleon lehendakari kargutan sartu zelarik, Grand Orient-eko framazonen buruak beren jauntzitan handizki hartu zituzten ministro framazonek, bi urte lehenago beste framazon batzu zirelarik 2. errepublikaren aintzindariak izanak. Jainko bat bazela sinetsi behar zuten bai eta hil ondoan beste bizi bat. 3. errepublikaren urteetan dira makurtuko Elizarekin.

Bi framazon elkarte baziren Baionan, Vieille Boucherie eta Douer karriken juntan (37an), *La Zélée*, Juduak onartu zituen lehen elkarte framazona Frantzia guzian. Ondorioz batzu atera ziren eta *La Parfaite Réunion* sortu Santizpirititan. Bainan 1847an honek toki arazoak izanik, biek bat egin zuten.

Xaho Santizpiritakoan sartu zen 1845an. Hargin heterodokzoa zen eta «anai» guziek ez zuten begi onez ikusten. Jakin nahi zuten garbiki zer egingen zuen Euskal Herria Frantziatik berexen bazen :

Il a répondu qu'il a pu désirer cette séparation lorsque la France gémissait sous la tyrannie de Louis-Philippe, mais qu'il ne saurait en être question aujourd'hui, à moins qu'il ne survint quelque contre révolution et que la France ne se trouva envahie et écrasée par les armées étrangères⁹⁵.

Bestalde heriotz zigorra onartzen zuen, bestek kondenatzen zutelarik⁹⁶. Gainera kalapita gorriak izan zituen bera bezen gogorak ez ziren beste «anaia» zenbaitekin.

Errepublikaren berria onartu zuen lehenetarik izan zen Baiona, Xahori esker. Herriko etxe-ko artxiborik ez da urte horrentzat. Orduko kasetetat aparte, Jacques Savin batek, 1948an bigarren errepublikaren mendeurraren kariatara agertu artikulu⁹⁷ eta Crouzetek idatzi

94. Ar 1848.2.24.

95. S 1848.2.20.

96. Ar 1848.11.20.

97. MJ Savin, *La Révolution de 1848 à Bayonne*. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne 1848, n°56, 3-7or.

beste bat dira iturri nagusiak⁹⁸. V. Wright inglesak bere tesia garai horretaz egina du⁹⁹. Lehen bi idazleek ez dute erraten zein diren beren iturriak, baina Crouzet framazonen historialaria da. Eta nola framazonek toki handia izan zuten egun horietan... Cuzacqek ere emaiten du urte horren berri¹⁰⁰. Orduan berean, Xahok *l'Ariel*-en eman zuten egun horien berri¹⁰¹.

Baiona hiriko buru ziren, beren amentsa diru egitea zuten burjesak. Errepublika berdin onartu zezaketen,... alde horretara baldin bazoan.

Lacroix apezpikua, Lamennais-ren dizipulua, sozial aldetik idekia zen, nahiz erregetiarra. Lamennais-ren artikulu asko bada *L'Ariel*-en. Apezak, Louis Felipe erregeaz aseak ziren: antiklerikaltzat zeukaten, konkordatuari esker eskupean baitzeukan Eliza. Soldadoak baziren zitadela, gaztelu berrian, gaztelu zaharrean eta Aturri-Eroberen juntan. Hauek bonapartistak. Harispe marexala ere hor zen. Ez zuten gauza handirik igurikatzen Louis Feliperen ganik.

Jende xeheak eskatzen zuena: lana, jana eta agusagailuak. *Panem et circenses* Erromatarren garaietan bezala.

Hona nola iragan ziren delako egun horiek Baionan Xahok berak kondatzen duen bezala bere kasetan¹⁰². Beste kasetetan ez da hurbiltzekorik ere horrenbeste xehetasun.

1) Igandea, otsaileko 27a

Parisen errepublika berria sortu zela jakin eta, Xaho joan zen Stein mekanao, Villa mahasturua bere adiskide framazonak eta jende andana batekin Harisperen ikustera, Errepublikaren aldarrikapenean parte har zezan eskatzeko eta armadak bat egin zezan herriarekin, karia horretara eginen zen bestan. Honek, Pariseko manuen beha zegoela. Xahoren oharra : *Il lui est facile de deviner qu'on s'en passera et qu'on ne les croit pas nécessaires.*

Ondotik Balasque auzapeza eta kontseiluko zenbait ikusi zituzten herriko etxean. Hauek onartu, guarda nazionalek beren aintzindariak hauta zituzten bozkatzuz. Bai eta libertatearen zuhaitza landatzea. 1790an, Vienne departamenduko St Gaudens herrian zitzaien gogoratu lehen aldikotz zuhaitz horien landatzea¹⁰³.

98. Jean Crouzet, *Chaho Franc maçon et la Révolution Bayonnaise de 1848*, in Augustin Chaho, Harriet, Helette 1996, 102 or. – Ikus ere *Loges et Frans-maçons, Côte Basque et Bas Adour, Atlantica, Biarritz* 1998.

Bai eta *Bayonne entre l'équerre et le compas*, 3 tomo, Limarc (1982), Harriet, Heleta, 1997 eta 1990.

99. V. Wright, *The Basses Pyrénées from 1848 to 1870*.

100. *Les élections législatives à Bayonne et au Pays Basque de 1848 à 1870*.

101. Ar 1848.2.29.

102. Ar 1848.3.1.

103. Me 1848.3.18.

Baionako jauneria «argitua» Barroilhet ostatuan bildua baitzen, Santandren, harat joan ziren gero. Sei komisario, Xaho barne, seiak framazonak, izendatu zituzten egoerari zoazkion erabakiak hartzeko: *une commission chargée de prendre des mesures relatives aux événements*¹⁰⁴. Manifestaldi erraldoi bat egitea erabaki.

Aratsaldean euria ari zen, baina bostetan abiatu ziren *L'Arielen* egoitzatik, Victor Hugo karrikako 40an. Denen aintzinean, Monségu *L'Ariel* kasetako zuzendaria, egoitzako lehoan zen bandera errepublikarra eskutan; herriko etxera joan ziren. Han bilduak ziren suhiltzaleak Stein tenientea buru. Manifaren buruan eman ziren hauk eta harresien ingurua egin, jendea biltzen zela joan arau Martzelleza kantatuz. *Circenses*???

Vieille Boucherie karrikaren buruan, framazonen egoitza aintzinean pasaturik bildu ziren, 1830ko oroit harriaren aintzinean, kalustra ondoan, mintzaldi bat entzuteko. Oroitharri hori Montaut plazan da orain. 1831an eraikia zuten, aintzineko urtean, uztailako 27, 28, 29an Parisen hil bi Baionesen ohoretan: GP Ader, medikuntza ikasketak egiten ari zen 24 urteko gaztea eta AM Labarthe 27 urteko jostuna. Hirugarren izen bat ere eman dute geroztik: 26 urteko Achille Dubroca okinarena, hau hain zuzen 1848ko otsailean, 24an, Parisko barrikadetan hila *L'Arielen* aipatzen duena¹⁰⁵. Kurioski ez dute eman Lanouhe, urte bereko ekainean Parisen izan nahaskerietan hil guarda nazionaleko sardiantaren izena¹⁰⁶.

Apezpikutegi aintzinean pasatu ziren *Aupa Errepublika* oihukatuz. Barkamendu eskatzen zion Xahok apezpikuari, bere otoitzen kartsutasuna hautsi baldin bazuten oihuek! Herriko etxean bururatu zuten. Arratsean, Antzokiko aldi, Casalès kantaria entzuteko *Martzeleza* ematen.

2) Astelehena, 28

Biharamunean ardietsi zuten guarda nazionalean bi konpainia gehiago sortzea, langileak ere baitziren hor sartu nahiak. Orduan bozkaz izendatu 16 kapitain eta tenienteak framazonak ziren. Geroxago sortuko zen iparmendebaleko batallunaren buru, hautatu zuten Xaho % 57 bozekin¹⁰⁷. Bazkaria eskaini nahi izan baitzioten karia horretara, nahiago izan zuen dirua eman langabezia eta beharrean zirenen alde¹⁰⁸. Lau hilabete geroago, Exelmans jeneralak kargutik kendu zuen, baizik eta ez zuela guarden uniformarik, batere ez zelarik egia¹⁰⁹.

Artetik errateko, prefetak igorri ageri batetan ikus ditake bandera berria, urdin-gorri-xuria zela ! *Bleu à la hampe, rouge au milieu et blanc dehors*¹¹⁰.

104. Ar 1848.2.29.

105. Ar 1848.4.4.

106. Int 1848.7.8.

107. S 1848.5.13.

108. Ar 1848.5.16, 18.

109. Ar 1848.9.13,14.

110. Int 1848.3.7.

3) Asteartea, martxoko lehena

Harizpe plegatu zen Xahoren erranei. Soladadoak bildu ziren harmen plazan. Jeneralak mintzaldi motz bat egin, gogoaren kontra, eta «Aupa Errepublika» oihukatu. Soldadoak obeditzen ikasiak eta gauza bera errepikatu zuten. Ondotik izan zen armadaren mustra. Paben uste izan zuten herriko bozkak egin zituztela¹¹¹.

4) Astezkena, 2a

Theodore Plantie-k hartu zuen Balasque-n auzapez kargua eta arratsaldean landatu, ospe handitan, libertatearen zuhaitza, herriko etxe aintzinean.

5) Ostirala 3a

Exelmans jenerala izendatu zuten guarda nazionaleko buru eta Théodore Delizalde fra-mazona honen ondoko.

6) Igandea 5a

Denen koroatzeko, katedraleko aldi, bi jeneralak, kontseilua auzapezarekin hor zeudela, aste zenbait lehenago erregearen urtebetetzearen karietara bezala, apezpiku eta kalonje denen aitzinean. Aldi honetan, katedrala mukurru betea zen.

Meza bururatzean kantanzen baitzen *Domine salvam fac regem*¹¹², apezpikuak manatua zuen *Domine salvam fac Populum*. Xahok, ardietsi, *populum* horren partez *republicam* kantatzea. Mezatik lekora, denak joan ziren libertatearen zuhaitzaren benedikatzera¹¹³.

7) Astezkena, 8a

Hiriko kontseilua bil zedien lortu zuen: ordrea, jabegoa, segurtasuna, eta libertatearen berme den errepublika onart arazi. Leremboire izendatu zuten zuprefeta, Boutoey auzapez, biak, *biharko* errepublikarretarik, erran nahi baita ordua arte ez zirela errepublikarrak. Hauek *atzoko* errepublikarrak deitzen ziren. 5 kidetako hauteskunde elkarte bat izendatu zuten, denak framazonak. Bainan ez zen Xahoren gustukoa izan denak burjesak baitziren. Bigarren talde bat sortu zuen honek, bere adiskideekin¹¹⁴.

Paben ere horrelako zerbait gertatu zen, 54 «adituren»-en artean egin baitzuten hautagai «hoberenen» zerranda. Ez denen gustukoa alabainan¹¹⁵.

111. Me 1848.2.20

112. Jauna salba zazu erregea. Jauna salba zazu populua. Jauna salba zazu Errepublika.

113. JdP 1848.4.16 ??

114. Ar 1848.3.19.

115. Int 1848.4.15.

8) Martxoko 22a

Bozkak izan ziren trinketean martxoko 22an, bi taldeen artean, deputatu hautagai zerrenda bakar bat egiteko. Xahoren gizonek 1.040 boz bildu zuten eta bestetan lehenak 310. Denetarik izan zen halere hameka izendatueta.

Batere ez zen kexu egin zuen lanaz:

Le service que nous avons rendu à la ville de Bayonne, dimanche, ç'a été de fournir à ses sentiments patriotiques l'occasion de se manifester. Le silence que gardait la commune historique du Moyen Age déshonorait ses annales glorieuses et les souvenirs de la fédération cantabrique dont elle fit partie dans un âge plus reculé¹¹⁶.

Bigarren errepublika sortua zen Baionan, izenez segurik:

Le succès a été notre récompense. Ce glorieux étendard cher à notre cœur, nous l'avons promené triomphalement dans les rues de Bayonne aux cris de Vive la République !¹¹⁷

Beste zenbaitek, berek egina izan balute bezala saldu zuten hori dena¹¹⁸. *Mm Harispe, Balasque et Le Roy auraient sauvé la République à Bayonne la journée du dimanche 27 février. Vous ne vous en doutiez guère cher lecteur. Nous non plus !*¹¹⁹ Biziki polliki aipatzen ditu konbertituak, Pabeko elkarte errepublikarrak: *Hommes qui cherchent à couvrir leur passé d'un masque républicain et qui, vrais serpents, font peau neuve dès que brille un nouveau gouvernement*¹²⁰.

Garai haietan, gorri eta zurien diferentzia egiten zuen, errepublikaren alde edo aurka izateak. Baina bigarren ezberdintasuna bat agertzen hasi zen, langileen alderateko ikusmoldea. Ondoko lerroek argi erakusten dute nola ikusten zuten zenbaitek langileria:

Si vous ne parvenez pas à déraciner chez elle l'habitude de festoyer dans les cabarets deux jours au moins la semaine, sans compter les fêtes qui se reproduisent assez souvent dans l'année, si vous ne réussissez pas à le détourner de la guinguette¹²¹ ou du marchand de vin, où elle va dissiper follement le produit de son travail dans les excès de l'intempérance,...¹²²

Xaho langileen aldekoa zen bainan garbiki erran zuen ez zela komunista.

116. Ar 1848. 3.5.

117. Ar 1848.4.3.

118. Ar 1848.3.8.

119. Ar 1848.3.19.

120. Me 1848.3.21.

121. Guinguette : ostatuxka.

122. Int 1848.

3. BESTE HERRIETAN

Beste herrietan ez zen beti Baionan bezain garbi izan.

Biarritzen ez zuten oraino deus eginik martxoko 1ean. Ondorioz, jendekek berek landatu zuten zuhaitza eta *Martzelleza* kantatu, batere auzapez eta hautetsirik gabe. *Il n'y a pas de commune dans le département plus arriérée en politique*¹²³. Ez ote dugu horietan sartu behar Etxeberri, elkarte errepublikarraren buru jarri zen Baigorriko auzapeza, aspaldiko erregetiarra? Xorte egunean lholdin erran zuen Bugeaud jenerala bizi zeno ez zuela sinetsiko Louis-Philipenak egina zuenik. Jeneralak Parisko karriketako zoko moko guziak ezagutzen zituela eta jestu gutiz xahutuko zuela handik, xeheteria guzia¹²⁴.

Donibane Lohizunez ez dakigu soberakinik nola pasatu zen bainan hauteskunde elkartearen izendatu zutelarik aintzineko herrigizon bihi batek ez zuen bozik aski izan barne sartzeko. Bizkitartean suprefetak ez zuen auzapeza kanbiatu. *Le sous commissaire du gouvernement s'est obstiné à le maintenir*¹²⁵.

Saran ere aldarrikatu zuten Errepublika eta kontseiluak jakin arazi, bat egiten zuela gobernu berriarekin¹²⁶. Herritarrek bandera txalotu zuten.

Arruntza eta *Beskoitzen* zuhaitzak landatu zituzten : zurtzuriak beste askotan bezala¹²⁷.

Uztaritzen sortu zen, batere errepublikarra ez zen *Club des basques* elkartearen eta egiazko errepublikarrek berena osatu zutelarik, *Club Catholique* izena hartu zuen... batere baimenik eskatu gabe apezpikuari! Alde horretan arrestelatzeko esperantzarekin ote?¹²⁸ Izan ziren beste *club catholique* batzu ere, bainan berek horrela izendaturik beren burua.

Mugerren gazteek herriko plazan landatu zuten aspaldiko errepublikar batek oparitan eman zuhaitza, honen etxean izanik bila, kantu, musika eta atabalekin. Bezperetarik landa, Darki auzapez berriarekin jendea haren inguruan bildurik besta egin zuten, bertsolari batekin besteak beste. Arnoa bazen nahikoa. Gauean berean norbaitek moztu zuen zuhitza bainan biharamunean berriz landatu zuten¹²⁹.

Bidarten ere moztua izan zen apirileko 2tik 3raterako gauean¹³⁰.

*Hiriburun*¹³¹ gauza bera gertatu zen bi aldiz, bainan iduriz zenbaitek beren gain hartua baitzuten lana, errepublikarrak ziren beste batzu bazterrerat utziz. Azkenean auzape-

123. S 1848.3.18.

124. Me 1848.4.14.

125. S 1848.4.1.

126. Ar 1848.3.16.

127. Ar 1848/4/9.

128. S 1848. 4.18.

129. Ar 1848.4.2, 4.4.

130. Me 1848.4.8.

131. Ar 1848.4.4.

zak berak hartu zuen bere gain landatzea, igandean, guarda nazionala, kontseilua, bai et apezaren benedizionearekin¹³². Errepublikako 6. urtean (1798) aberriaren aldarea eraikia zutenetan xaharrena hor zen, bai eta guardia nazionala eta herriko arduradunak, garaiari zoazkion ospakizunetan¹³³.

Kanbon herriko arduradunak gabe landatu zuten eta gauaz botoia izan zen¹³⁴. Ez zen harrizkorik auzapeza ez bazen hor: batere ez zen errepublikatzalea ! Oroit lehen errepublikak oroitzapen txarrak uztiak zituela, 3 Kanboar gillotinatua izanak baitziren¹³⁵.

Urkoïn ere eskuz esku ari izan ziren Lardapide apeza eta herritarrak. Zuhaitza tindatu zuten eta apeza goretzi bere esku zabalagatik (générosité)¹³⁶.

Ortzaizen 130 aita familiako bildu ziren Florentzeneko etxaintzinean, zuhaitza landatu eta *Martzellezaren* bi koplak kantatu. Euskaraz!¹³⁷ Florentzenekoa zen Jean Baptiste Bordenave, Ortzaizeko lehen auzapeza, 1790an¹³⁸.

Martxoko 2an, *Donapaleun*, herri gizonak ez baitzuten deus egin nahi, St Gaudens abokata sartu zen herriko etxean auzitegiko beste lege gizon zenbait eta herriko errepublikarrekin eta abokata auzapez izendatu zuten, Dupouy eta Salaberry axuant, gehiagorik gabe. Herriaren itzulia egin zuten bandera eskutan¹³⁹. Kolegioko haur guzien aintzinean zuhaitza landatu, Larraburu jaun errektorak benedikatzan zuela, mintzaldia berak egin ondoan¹⁴⁰.

Egun berean, *Arberatzen* bat egin zuten Nays Candau auzapezak, bere axuantak eta Salaberry errektorak. Herri guzietan bazkaria aintzin ematen baitzen meza, hemen kontrarioa. Kantuak ederragoak baizik ez zitezkeen. Ez uste izan harra bezala hantzen zirela bazkari horietan. Bi aldiz jakin dugu menuaren berri: ogia, intzaurrak, gasna eta arnoa! Mahainak tafallarik gabe eta gomitak zerbitarik gabe!¹⁴¹

Domintxinen Arbelbide errektorak zuhaitzaren benedikatzearekin, mintzaldia ere bere gain hartu zuen. Bazkariaren artetik eske bat eginarazi zuen nehorik uste baino gehiago biltzen zutela¹⁴².

132. S 1848.11.4.

133. P. Haristoy, Les paroisses du Pays Basque, 1. Tomoa, Harriet, Baiona, 1981, 201 or.

134. Ar 1848.4.25.

135. P. Haristoy, 1. Tomoa, 277 or.

136. Ar 1848.3.2 ???? Sent. 1848.4.6.

137. Me 1848.4.10.

138. P. Haristoy, 2. T. 158 or.

139. Ar 1848.3.2.

140. Sent 1848.IV.

141. Ecl 1849.11.6.

142. Mem 1848/6/4.

Akemarren Gassie-ko kurutzearen ondoan bildu ziren 1792an bezala, apirileko 16an, bezperetarik landa, gizon eta emazte, zahar eta gazte, haurrak eta denak, falta zirela auzapez eta axuanta, nahiz gomitatuak ziren. 1792koaren ondoan landatu zuten zuhaitz berria, Fages apezak benedikatu, eta 80 bat bildu gero bazkarirako, ordu arteko hautesiak kargutik kenduak izateko petizio bat izenpetu ondoan¹⁴³.

Donibane Garazin martxoko 3an aldarrikatu zuten Errepublika, Brie-k eskutan zeukala bandera berria¹⁴⁴. Igandean bildu ziren herriko etxean, herri-gizon, gobernuko mutil, gazteluko soldado, guarda nazionala eta denak, gero ospe handitan eman zuen meza mukurru betea zen elizan, Malgor erretorak, Parisko hilentzat. 200 libera eman zuen eske bat egin zuen¹⁴⁵. Ondotik plazan landatu zuten zuhaitza, Renaud-ren mintzaldia entzun *Martzelleza* eta *le chant des partisans* eman denek, eta bazkari bat ederra egin trinketean 208 lagunek. Trinketeko sohailuetarik jendeketa eder batek entzun zituen Renaud, Etxeberri, Mareino eta Fort-en mintzaldiak. Sasoi horretan gaua goizik izanez, argiak eskutan ibili ziren gero Donibaneko karrketan «Aupa errepublika» oihukatuz, Izpuratik etorri bandera, auzapez, musika eta atabalak aintzinean zituztela. Gaua dantzaldi batekin bururatu zen¹⁴⁶. 3.000 jende aipu dute ibilaldian: nork kondaturik?¹⁴⁷ Baina arazoak izan ziren lehengo eta biharko errepublikatzaleen artean¹⁴⁸.

*Donazaharren*¹⁴⁹, zuhaitza landatu eta, norbaitek moztu zuen, baina berriz landatu zuten Irunberri auzapezak egiten zuela mintzaldia, Apeza eta bi kapitain ondoan zeukala¹⁵⁰.

Arnegin zuhaitza landatu eta zenbait egunen buruan apezak meza eman zuen «gogotixko» Pariseko hilen alde eta gero 70 bat bildu ziren bazkari errepublikarrean¹⁵¹.

Lekunberri, gaztek erabaki zuten Donibandarrekin bat egitea, zuhaitza berek landatuz herriko plazan. Ez zen auzapezaren gustukoa izan. Atabala, herrikoa izanez, kendu zien, Ahatsakoa agertu baitzuten orduan, hau ere debekatu. Guarda nazional zenbait deitu zituen gazteen bi buru geldituz arazteko eta Murgiarten etxean preso eman zituen¹⁵².

Larzabal-Zibitzen lehen iraultzakoaren ondoan landatu zuten zuhaitza, Etxebest guardia nazionaleko kapitaina buru eta 54 bildu ziren bazkarian, martxoko 12an¹⁵³.

143. S 1848.4.29, Int 1848.5.29.

144. Ar 1848.3.3, Me 4/19.

145. Me 1848.3.13.

146. Ar 1848.3.12.

147. S 1848.7.21.

148. Ar 1848.4.4.

149. Ar 1848.3.15.

150. Me 1848.4.18.

151. Ar 1848.3.30.

152. Ar 1848.3.12.

153. Me 1848.3.21.

Jutsin, bazkaria apirileko 11an egin zuten¹⁵⁴.

Xiberoko lehenak izan ziren *Urdiñarben*, ehun bat gizon igortzen zutela Mauleko suprefeturarat¹⁵⁵, beren auzapeza aldatua izan zedien eskatzeko, erregetiar amorratua zelakotz. Schilt-ek ongi entzun zituen. Auzapeza kargutik kendua izan zen¹⁵⁶.

Atarratzen, Darhanperen partez Daguerre eman zuten auzapez¹⁵⁷.

Santa Garazin Marinée, errient eta guardia nazionalako kapitaina zuten buru¹⁵⁸.

*Mitikileren*¹⁵⁹ aldi apirileko 2an: apezak benedikatu zuen zuhaitza eta jendea dantzan ari izan zen inguruan.

Mendikotan, martxoko 23an landatu zuten zuhaitza¹⁶⁰. *Larrañen*¹⁶¹ euria zurrupitan ari zela landatu zuten zuhaitza eta honen inguruan ari izan dantzan eta kantuz. *Martzellezaren* kopia bakoitzaren ondotik dotzena erdi bat tiro botatzen zuten, artetan baso bat arno hurrupatzen zutela.

Apirilareko 9 an *Aiherrara* etorri zen Nogue prefeta berria, Leremboire bere zuprefetarekin, igandekari. Denek usteko zuketzen erregeren gobernuak izendatu auzapez, axuant eta herri gizonak beren kargutik kenduko zituztela, Eustache Londaitzbehete izendatzeko auzapez eta Lardapide semea axuant¹⁶². Mintzaldi bat egin zuten pilota plazan, libertatearen zuhaitza landatu herri guzia eta guarda nazionalak inguraturik. Bainan karguen berri-zerik ez zen aipatu. Bozkak izan zirelarik beste herrietan bezala, aintzineko kontseilukoak ez ziren aurkestu ere eta berrien alde bozkatu zuten 258 bozkataleatarik 252k.

Nahiz Biarnoan den, bainan Euskalherriko mugan, *Bonnut* herriko erretorak zer egin zuen erratea balio du. Adina gatik bere paga 25 liberaz emendatua eta, 25 libera horiek oparitan eman zituen¹⁶³.

Aipa dezagun Biarnoko beste herri bat *Garlède Monbedat*, azpimarratzen baitute apezak mintzaldi bero bat egin zuela zuhaitza benedikatu ondoan, jendeak dantzan ari izan eta bazkariarekin bururatu zutela besta¹⁶⁴. Euskal Herrian bezala.

154. Me 1848.4.11, 21.

155. Me 1848.4.4.

156. 1848.4.1.

157. Me 1848.3.24.

158. Me 1848.4.19.

159. Me 1848.4.14 1848.2.4.

160. Me 1848 4.7.

161. Ar 1848.3.16, 4/4.

162. Hau ere Xaho eta Hiribarren apezaren adiskideetarik zen.

163. Sent. 1848.4.

164. JdP 1848.5.12.

Aipatu ditugun 14 herritan, apezak parte hartu du errepublikaren alde. Ez ziren zenbaitek uste duten bezala erregetiarrak beraz. Izan ziren kontrakoak ere. 5 kondatu ditugu: % 21! Jendeak bezala, ez dira denetan berdin errepublikatzale agertu. *Landibarren*¹⁶⁵, finkatu egunean, Hiriart jaun erretora ez zen nihon ageri zuhaitza benedikatzeko. Baina arratsan oiloa oilategirat bildu. Zazpi gazte joan zizaizkion, atea jo. Honek, barnetik, ea zer nahi zuten. Elizaren aintzinean¹⁶⁶ landatua zuten libertatearen zuhaitza benedikatzeko. Hark, ezetz, gaua zela, ez zela tenore bat. Biharamunean ere argituko zuela.

Baietz, ezetz, jaun erretorak deus ez baitzuen entzun nahi, azkenean aizkora ukaldika hautsi zuten atea, etxea miatu, baina apezik ez aurkitu. Leioa idekia zen: xoria handik airatua! Ibil ziren bai, etxez etxe, baina nehon ez aurkitu.

Gauza segurra, Hiriartek konbikzioak bazituela, ez zela begiak hetsirik «apezpikuak bezala» egiten zuten haietarik. Zuhaitz hori moztu zuten gero 26tik 27rateko gauean¹⁶⁷.

Larrañen, Lhande erretorarik ez zen aipu zuhaitza landatu zutelarik. Baina elizan mintzatu zen eta Irigoien auzapezak gutun bat igorri zion:

Le public se plaint de la manière dont vous avez parlé politique dans l'instruction d'aujourd'hui. Je vous prie de ne pas donner lieu à des bruits qui pourraient avoir des suites fâcheuses, ce que je verrais avec beaucoup de peine¹⁶⁸.

4. BARDOZEN

Toki berezia emanen diogu Barдозeko herriari xehetasun gehienik daukagun barne aldeko herria baita, *Le Journal du Peuple* egunkariari esker¹⁶⁹: orrialde bat eta erdi badu herri honetaz. Hor ikusten dugu Errepublika oitsaileko 27an berean aldarrikatu zutela, Pariseko biharamunagoan eta Baionako bezeperan. Libertatearen zuhaitz martxoko 19an landatu zuten eta gaitzeko besta egin apirilko 2an, igandearekin.

Goizeko 8-tarik hasi ziren atabalak bazterren inarosten. Bederatziak eta laurdenetan guardia nazionala bildua zen plazan bere buruak oroitzuten zirela zein ziren haren eginbideak. Gero elizako aldi eta meza bururatzean Martin Hiribarren erretorak bandera benedikatzeko zuela, prediku sarkor bezain sakona egin zuen. Eta *Domine salvam fac rempublicam* kanta arazten Xahok Baionan eskatu bezala. Xahoren adiskide mina zen, eta elgarrekin izanak ziren Iruñako bestetan.

Elizatik lekora, Louis Dameztoi batek beste mintzaldi bat egin zuen zuhaitzaren aintzinean, Barдозatarrek inguratutik. Ondotik guardia nazionalaren munstra.

165. S 1848.3.27.

166. Me 1848.4.6.

167. Me 1848.4.8.

168. Ar 1848.4.4, 4/16.

169. JdP 1848.4.10.

Gero herriko etxean bildu ziren eta bozkaz izendatu Baionakoarekin harremanetan sartu behar zuen elkarte errepublikarra. Lauetan, bazkaria, herriko etxean bilduak zirela Etienne Dameztoi auzapeza, axuant, herri-gizon, guardia nazionalako aintzindari eta herriko langile. Apairua ez zitekeen burura kantu zenbait gabe. Arratseko 9ak arte iraun zuen bestak, atabalek jakin arazten zutela orduan, etxera itzultzeko tenorea zela.

Guardia Nazionaleko buruaren mintzaldian ikusten dugu egun haietan izendatua izana zela, sortzez Bardoztarra bainan hain segur Baionan bizi zen Damestoy batek, «avoué» bere ofizioz¹⁷⁰. Hona beraz mintzaldi hau lehenik. Gero emanen ditugu Hiribarrenena eta auzapezarena. Hiruak frantsesez dira, Hiribarren euskal idazlearena barne.

Gardes nationaux, mes chers camarades,

Je vous remercie de l'honneur que vous m'avez fait en me nommant chef de votre bataillon. Enfant de la commune, lié de cœur et d'affection à mon pays natal, j'accepte ce grade avec bonheur ; il sera probablement très provisoire, mais chaque fois que vous m'honorerez de vos suffrages, et qu'il dépendra de ma volonté de sacrifier mes convenances personnelles pour obéir au devoir du bon citoyen, comptez sur moi.

Je vous rappellerai en peu de mots les devoirs que nous impose notre institution. Nous sommes chargés de veiller à l'ordre public, de maintenir la tranquillité, de faire respecter la propriété et les personnes; dans les circonstances pénibles et délicates, nous devons faire preuve de courage et de dévouement. Nous devons aide et protection à l'autorité; nous devons même exposer nos jours, si l'intérêt général le commande.

Gardes nationaux, obéissez à vos chefs; nommés par vous, ils sont dignes de votre confiance, remplissez avec zèle les devoirs du soldat citoyen; n'oubliez jamais que nous sommes tous frères, combattant pour le bonheur et la gloire de la France, notre mère commune.

Vive la république.

Hiribarren erretora zein sutua zen Frantzia eta errepublikaren alde ikusten da egin zuen mintzaldi luzean, Bardoztar gehienek ulertu ez zuketean frantses zerratu batean. Demosthènek bezain ongi egin nahi izan duke.

Milices aux livrées nationales, je suis heureux d'avoir béni votre drapeau. Si une carrière différente ne m'imposait d'autres devoirs. J'irais au besoin avec vous, soutenir et augmenter la gloire immortelle de ces trois couleurs. Ce n'est pas invoquer la guerre, la France ne la provoque point ; mais si on la lui déclare, aucun de ses enfants ne doit la craindre. Maintenez-vous dans une attitude tranquille mais imposante, vis à vis de l'étranger. Ce labarum¹⁷¹ de gloire, vous le préserverez, l'arme au bras, de la souillure du doigt ennemi ; mais au-dedans vous pourrez rencontrer de faux frères, ennemis de la concorde et de la tranquillité. En vous confiant ses armes, la Patrie vous recommande ses plus chers intérêts, la vie et la sécurité des citoyens. Puisse le bien public vous devoir le sursis de la guerre au dehors, et au dedans, la conjuration du cataclysme des tempêtes meurtrières ! Puisse la France ne jamais se repentir d'avoir confié à votre patriotisme les intérêts de la concorde, de l'ordre et du respect des lois ! Au nom de l'amour sacré de la patrie, craignez de jamais déchirer les entrailles de notre

170. Int 1848.5.23.

171. Labarum = 312an, Maxencen kontrako gudua irabazi eta Constantin inperadoreak kurutzea gainean eman zion bandera.

héroïque mère. Guerre aux traîtres, aux perturbateurs du repos, aux forbans¹⁷² du trésor ! Mais paix et protection au faible, aux bienfaiteurs de l'humanité, à la propriété et à la religion, dont la république apprécie les saintes maximes, en lui empruntant l'extrait de son divin code : Liberté, égalité, fraternité !

LIBERTE ! Fils des lions de la vieille Cantabre, la liberté c'était la lyre qui faisait bondir vos pères, la trompette qui dans leurs moindres dangers, les faisait courir aux armes. L'histoire raconte avec orgueil les merveilles de leurs efforts pour maintenir leur sainte indépendance. Pendant quarante siècles, du haut des Pyrénées, ils bravèrent le victorieux Romain, le sanguinaire Vandale, et l'indestructible Arabe. Leur héroïsme ne fut maculé du stigmate des chaînes que lorsque l'univers les avait déjà subies. Le lion s'endort quelques fois, mais notre sommeil n'a point assez duré pour interrompre le règne éternel de la liberté Euskarienne. Le géant liberticide a été lancé dans l'abîme par l'éclat du réveil populaire, et le Cantabre avec ses frères de France s'est trouvé debout dans toute la majesté de sa taille, prêt à défendre aux dépens de sa vie, la liberté qu'on lui avait arrachée par morceaux. Elle a eu quelque temps le sort du feu sacré des juifs. Dans des temps malheureux ils l'avaient enfoui, et, mêlé à la terre froide, il perdit son ardeur ; mais à peine eut-on écarté la couche de la terre qui l'étouffait, que, au contact des premiers rayons du soleil, il reprit son activité première. Ainsi, à peine l'auguste vérité verse ses rayons dans la profondeur des âmes qu'il s'y allume un feu qui consume les liens de l'esclavage et fait luire le majestueux soleil de la liberté que nous suivons.

Reprenons donc bien vite le vieux refrain de nos frères : Libertatia cein eder den ! Qu'on ne vous impose plus de maître. Choisissez vous-mêmes des guides et qu'ils se trouvent de la gloire dans le titre de vos serviteurs ! Vive la liberté ! O parole enchanteresse, sois toujours l'évangile de la France et du monde ! Vertu divine, brille de la plénitude de ton éclat ! Que tes ardents apôtres n'oublient jamais qu'au dessus de tes limites règnent, en ignominieux potentats, les prisons, le bague et la potence ; et au dessous, l'esclavage au front flétri, assez semblable, dans son humiliante rage, à la victime qui bout dans un ténébreux cratère. Liberté sainte que la boue du vice et du libertinage ne souille jamais ton front virginal et ta robe immaculée. Que le crime audacieux n'invoque jamais ton nom sacré dans ses bacchanales orgies. Puissance magique, détruis à jamais les caveçons¹⁷³ imposés à l'action de la justice, à la manifestation des abus et à l'exercice du bien !

EGALITE ! Qui oserait soutenir la diversité d'origine ou radicale de deux races d'hommes ? Que l'orgueilleux creuse profondément dans la poussière de ses parchemins, il rencontrera bientôt le limon, matière de tout corps ; et s'il approfondit la question de l'âme, il ne remontera pas plus haut que le Ciel, source de tout esprit. Ce n'est pas à dire que Dieu ne veuille l'échelle des hiérarchies, il la recommande et lui voue des honneurs. Vous mêmes, vous venez de consacrer sa volonté en place au dessus de vous des chefs revêtus de pouvoirs, et par conséquent dignes de respect et de considération. C'est seulement fouler cette égalité vandale qui arracherait au légitime possesseur le fruit de ses sueurs ou de la prévoyance de ses pères pour le donner au prodigue et à l'ennemi du travail. La terre prodigue ses richesses selon qu'on l'arrose de plus ou moins de sueurs, qu'on la cultive avec plus ou moins d'intelligence, et elle répond ainsi sagement aux prétentions de l'égalité absolue.

Mais, trop modeste soeur de la liberté, elle a vu trop longtemps repousser ses légitimes droits qu'on assimilait à ceux d'un voleur. Elle ne fut pourtant pas toujours paradoxale ; elle ne soutint pas que toutes les forces étaient égales et devaient supporter les mêmes fardeaux, que tous les esprits étaient doués de la même éloquence que toutes les passions et volontés étaient capables des mêmes traits de vigueur et d'héroïsme. Elle voulait qu'on ne tint pas au fil compte des vertus de son père ; que chacun fut fils de ses œuvres ; que dans la même

172. Forban = Legea zer den ere ez dakiena.

173. Caveçon = zaldien ahoko mota bat, « mors ».

profession, dans la même hiérarchie, pour les mêmes services, il y eût parité de récompense, d'encouragement et de reconnaissance.

Les balances de la justice divine n'ont jamais été à la merci des favoris ; elles pèsent le mérite sans égard à l'éloquence de la brigue et à l'éclat de l'écorce. La loi, expression de la volonté divine, ne doit point avoir deux poids et deux mesures : tout homme est égal devant Dieu et devant la loi. Il est temps de faire son procès à la justice distributive gangrénée par des forfaits d'iniques mains, dont le glaive ne savait que traquer l'homme qui prend la bûche pour chauffer la glace de sa grelottante vieillesse, ou le liard¹⁷⁴ qui achète le pain noir nécessaire à l'existence du squelette. Mesurèrent-elle jamais les attentats sous l'équerre des lois ? Que de justice à assigner aux assises !

Que l'égalité fasse enfin valoir ses droits. A son égard l'iniquité a franchi toutes les bornes. En son nom, poussons un cri qui sera entendu par toute la France, un cri qui convertira cent mille Iscariotes, et leur fera rendre en amendes la graisse de leurs sueurs, l'arriéré de vos créances et l'intérêt de bien des siècles.

LA FRATERNITE ! C'est la plus aimable des vertus, mais aussi la plus rare. Qu'elle ne soit plus une vaine théorie. Aimons-nous, supportons les défauts les uns des autres jusqu'à pouvoir les extirper avec l'arme de la raison éclairée. Il y a longtemps que le précepte de la fraternité retentit dans le désert ; les bouches qui le proclamaient comme une vertu à laquelle se rattachaient toutes les autres, n'avaient pas l'airain des républicains... Aux siècles passés, à peine prêchait-on la fraternité dans les réduits des temples, proclamons-la tous aujourd'hui sur les monts et dans les carrefours. Qu'il n'y ait plus en France de tyrans, d'esclaves ni de bâtards. Que tous les partis se confondent dans le baiser de la fraternité, qu'il n'y ait plus que des républicains. Que ce mot n'effarouche point vos oreilles ; il ne doit plus vous rappeler les noyades, la guillotine et l'anarchie. Les républicains sont les amis du travail, de l'ordre public, de l'équité, de la sobriété, de la simplicité des mœurs, de toutes les vertus et enfin de la dignité de l'homme. Les bourreaux, les voleurs et les paresseux sont leurs plus grands ennemis. Ils repoussent de leurs rangs tous les égoïstes et les frelons qui voudraient dévorer le miel de la laborieuse abeille, comme les flots vomissent l'algue impure qui souille leur céleste couleur. Les vertus proclamées par le code républicain vous les pratiquez déjà ; vous étiez donc déjà républicains, c'est la pratique, ce sont les oeuvres et non la théorie et les paroles qui font foi des véritables sentiments. Où pratiquera-t-on jamais, mieux et plus constamment, la divine fraternité que dans nos maisons, abris de tant de nécessiteux et soutien de tant de besoins ? Où vit-on plus de bonnes mœurs, et moins de prostitutions, moins de méprisant orgueil, moins de déchirante envie, moins de pétrifiante paresse ? Si d'autres ont eu le courage qui fait les révolutions, vous avez les vertus qui les divinisent ; et ce n'est pas le moindre mérite. Servez le modèle à ces hommes de l'agitation qui empêchent le retour de la confiance ; inspirez-leur vos pensées, vos paroles et vos actions ; et j'inaugure la prospérité de la république française.

Discours de Louis Damestoy au pied de l'arbre de la liberté.

Mes chers compatriotes,

Cet arbre, symbole de la liberté, doit nous rappeler l'avènement glorieux de la république. Il y a plus de cinquante ans, un de mes oncles, qui sacrifia son existence aux intérêts de la république, défendait la cause du peuple à la place que j'occupe en ce moment ; je suis fier de son exemple. Que ce mot de république ne soit pas pour vous un objet d'effroi : notre république n'est pas une république de sang, de pillage et de terreur ; c'est la république de l'ordre, du travail, de la sécurité des personnes, du respect de la propriété ; c'est la république de liberté, d'égalité et de fraternité pour tous.

174. Liard : lehenagoko txanpon ttiki ttika bat.

Mes chers compatriotes, comprenons bien ces trois mots, nos pauvres campagnards, abimés par la misère, écrasés sous le poids des impôts ; nous qui à la sueur de notre front, demandons aux entrailles de la terre le pain de chaque jour. Jusqu'à présent on s'est fort peu occupé de nous. Aujourd'hui, il dépend de nous d'améliorer notre sort. Pour cela nommons des représentants dignes de notre confiance, des républicains purs, désintéressés, fermes, énergiques, éclairés, qui cherchent à remédier à notre pauvreté, en encourageant, aidant et honorant notre agriculture. C'est du sein de la terre que doivent sortir la vie et notre bien être. Nommons des représentants qui demandent la réduction de tous les impôts, l'abolition de l'impôt sur le sel et sur les objets de première nécessité ; des représentants qui demandent une instruction large et gratuite, qui permette au fils du pauvre, comme au fils du riche, d'occuper pas son mérite, les plus hautes fonctions de l'état, des représentants qui demandent la réduction des hauts traitements des fonctionnaires, des représentants qui demandent que les capitaux soient soumis à l'impôt comme la propriété foncière ; en un mot, nommons des représentants qui veulent le bonheur de tous et de chacun : voilà la liberté, l'égalité et la fraternité.

La nomination des représentants ne se fait plus comme autrefois ; aujourd'hui tout citoyen à 21 ans est électeur et éligible. Usons de notre droit. Coupable et mille fois coupable, celui qui y serait indifférent ! Organisons à l'instant même un comité électoral qui correspondra directement avec le comité républicain central de Bayonne ; ce comité nous fera connaître les noms des candidats qui aspirent à la représentation nationale ; il nous désignera ceux qui sont appuyés par les divers comités du département et il nous mettra en mesure de choisir ceux de notre confiance.

Mes chers compatriotes, que le 23 de ce mois, aucun de nous ne s'abstienne de se rendre au chef lieu du canton pour déposer dans l'urne électorale les noms des onze représentants du peuple de notre département. Liberté entière sur leur choix ; mais, la main sur la conscience, n'oublions pas de nommer des républicains sincères, qui veulent le bonheur du peuple, la prospérité et la gloire de la France. Vive la république.

5. HAUTESKUNDEAK

Deputatuak behar ziren Errepublika berriaren Konstituzioa egiteko. Apirilean berean hautatu ziren, gizon guzietan zeukatelarik bozkatzeko eskubidea. Ordu arte, eskubide hori zeukatenak, bizpahirur ziren gorenetik herri bakoitz, zerga handienak pagatzen zituztenak.

60 hautagai orotara 11 deputaturentzat. Bakoitza bereber aurkesten zen, ez baitzen oraino alderdi politikorik. Baina hautagai zerrendak egin zituzten 'comité' deitu talde zenbaitek eta hor agertuko ziren deputatu gaien tendentziak. Denek zioten errepublikarrak zirela baina aspaldiko errepublikarrek ohart arazi zuten bazirela atzoko errepublikarrak eta, norat haize, harat aise, *biharkoak*. Biharkoak, erran nahi baita oraino ez zirenak ongi konbertituak, batere konbertitu baldin baziren. Zuriek ere onartzen zuten biak bazirela; bigarrenak lehenak bezain onak naski haien ustez: *républicains de la veille ou sincères ralliés du lendemain*¹⁷⁵. Hala nola Clément d'Andurein Xiberotarra, erregeak Mauleko suprefeta izendatua izana, Etxeberri Baigorrikoa, erregeren garaietako kontseilari nagusia. Olerki moldean ematen zuten bere ikusmoldea:

175. Int 1848.3.18.

Comme les vierges rébutés de songes des vieilles légendes célèbrent la chasteté hargneuse, la République semble redouter d'être belle et prend plaisir à se défigurer ; Aussi, combien l'auraient aimée, qui s'en éloignent¹⁷⁶.

Hautua egiteko baziren argia Jainkoaren ganik igurikatu zutenak. Hala nola batek untzi batean eman zituen 61 paper. Bi xirio pizturik unziaren bi aldeetan belaunikatu zen, otoitz egin kartsuki eta 11 txartela bat besteren ondotik atera. Nork erran lezake ez zirela hoberenak?¹⁷⁷

Administrazioak sutengatzen zituen zazpitan, Boutoey Baionako auzapez berria, Leremboure Baionako suprefeta, St Gaudens Donapaleuko abokata eta Orteseko suprefeta. Elizak sustengatuetan ekarriak ziren, Etxeberri Baigorriko notarioa, Larrabure Paben bizi zen Garaztarrarekin, bai eta Renaud Garaztar errepublikarra, baina Elizako urratseri jarraikia. Errepublikar beroenetan, Xaho. Aspaldiko errepublikarretarik ere Lamaignière, *L'Eclaircur* Baionako kasetaren jabea, François Brie, Izpura Laustaneko familiatik.

«Elizak» erraten dut, baina apezpikuak garbiki errana zuen apezek ez zutela politika jokoetan sartu behar:

Il est loin de votre pensée comme de la mienne, que la chaire chrétienne puisse servir à la politique [...]. Etrangers à tout esprit de parti, jaloux de conserver l'estime et l'amitié de tous, vous demeurerez en dehors des intrigues et des discussions. [...] Le gouvernement ayant demandé [...] que la formule « *salvam fac rempublicam* » soit substituée à celle qu'il avait indiquée en premier lieu, on emploiera désormais la dite formule qui est d'ailleurs celle adoptée par la concordat¹⁷⁸.

Lehengoari ez jarria eta *Domine* kantua hasi ondoan apez bati ahantzi zitzaion bururatzeko berria. Gelditu zen eta erran *le gouvernement provisoire*¹⁷⁹.

Parisko kardinalak lehen minitroari idatzia zion : *Je suis heureux de vous dire que vous pouvez être sûr du loyal concours de tout le clergé de Paris*¹⁸⁰. Sibour, honen ondokoak apezari idatzi zion: *Comme prêtres, vous devez rester en dehors de toutes les parties*¹⁸¹. Bestaldetik ere musika bera zen: Carnot ministroak idatzi zion apezpikuei : *Le clergé, dans son unanime adhésion*¹⁸². *Le Memorial* egunkariak zioen: *Jusqu'ici, les journaux hostiles au clergé se sont bornés à des assertions vagues et deux ou trois faits isolés ont été les seuls articulés dans toute la France*¹⁸³. Hemen berean ere baziren delako bizpahiru horietarik baina aldekoak aise gehiago ziren.

176. Int 1848.5.25.

177. Me 1848.4.24.

178. JdP 1848.4.16 : Circulaire de l'évêque de Bayonne au clergé du diocèse à l'occasion des élections pour l'Assemblée nationale.

179. Int 1848.3.18.

180. Me 1848.3.14.

181. Me 1848.11.23.

182. Me 1848.3.18.

183. Me 1848 5.18.

Apezpikua apezpiku, bainan erretor zenbait aitasaindu bere herrian. Ez zioten denek obeditu. Beren gisara interpretaturik lerro hau ote? *Les conseils que l'on pourra vous demander, vous les donnerez avec la prudence et la modération qui vous distinguent*¹⁸⁴. Ez baitzien herri osoak galdetzen aholkurik, elizan emateko! Aholkuak baino gehiago, manuak zituzten eman zenbaitek. Hona Hazparnetik igorri gutun bat:

Le clergé aurait répandu dans les campagnes une foule de bulletins électoraux portant, bien entendu, les noms des candidats les plus opposés à la République. Non content de cela, on aurait été jusqu'à distribuer ces bulletins dans l'église même¹⁸⁵.

Apezen lana ala elizatiar mugazain aintzindari batena kasu honetan?¹⁸⁶

Ondoko salaketa departamenduari egina zaio orokorki:

Du sommet de la chaire évangélique, on a lancé l'anathème sur certains candidats à la députation. Dans les mystères du confessionnal, on a imposé des noms sous peine de péché, on n'a accordé l'absolution que sous la promesse des votes. Des ministres du Dieu de paix ont violemment arraché des bulletins des mains des électeurs, les ont déchirés et remplacés par d'autres¹⁸⁷.

Horrelakoak izan ditezke. Zenbat?

Azaroan, lehendakari bozketan, Xahok konplimenduak eginen zizkion Parisko artxapezpikuari: *il écrit à ses curés qu'ils ne devaient se manifester que par la prière, car la religion doit rester en dehors de tous les partis*¹⁸⁸. Apezak herritarrak iduriak ziren: baziren kontrakoak beraz, bainan gorago aipatu ditugu, aldekoak, aise gehiago.

Bazkoz izan ziren bozkak. Apeza eta auzapeza, bandera eta 2 atabal aintzinean joan ziren bozkatzerat beren herritik, bi lerrotan¹⁸⁹, finkatu tenoreko, kantonadako zentrorra gehienetan. Eta oinez. Batzutan baziren bi zentro, hala nola Iholdi eta Larzabal. Elizako ixiltasuna iduri zuen herriko etxeok¹⁹⁰. Lau bozemailetarik hiruk bozkatu zuten: 116.000tarik 90.200ek. Departamenduko xapeldun, Baigorri % 80ekin. «Atzoko» Errepublikarrak nagusi, Baiona, Xiberua eta Baxenabarran salbu Baigorri, Etxeverriren erre-inua baitzen hau. Eskuina nagusi Lapurdi barnean.

Hona zer izan zuten deputatu atera ziren euskaldunek: 3. departamendu mailan Boutoey (64.200 boz), 4. Renaud (60.500), 6. Leremboure (55.200), 7. St Gaudens (49.500) eta 10. Etxeverry (41.500). Bazter gelditu, ziren, urrun, Xaho (21.700, errepublikarreneetan lehen), Larrabure (21.500), Lamaignière (18.900). Urrunago oraino, Brie (3.500) eta Ber-

184. JdP id.

185. Sent.

186. Sent.

187. Sent.

188. Ar 1848.11.22.

189. Me 1848.4.26.

190. Ar 1848.4.25.

doly, gero famatua izanen zen haren aita (2.200). Geroxago, Etxeberri, Dariste, Laussat eta Lerembourek bozkatu zuten Louis Philippe eta bere familia Frantziara itzultzea debekatzeko zuten legearen kontra, «biharko» errepublikatzaleetarik zirela erakusten zutela¹⁹¹.

Balio du aipatzea Iholdiko kasua: 1. Renaud 1.900, 2. Xaho 1.300, Marrast hirugarrenak 700 zeuzkalarik.

Errepublikarreenetan boz gehiena izan zuena: Xaho. Euskal Herrian orokorki nagusi zen, baina Biarnoan ez, eta Biarnoak zeukan gehiengoa. Bera hautagai zen Nogué Pabeko prefetak kanpaina egina zuen «atzoko» errepublikarren kontra.

Eliza aldetik haizea itzultzen hasia zen: zuhaitzaren bestan hoin ederki parte hartu zuen Malgor Donibane Garaziko erretora ari izan zen predikuan, ez zela buruberoen alde bozkatu behar, denek konprenitu baitzuten elizako urratsei hain jarraikia zen Renaud zuela partida: apez honek zerrenda bat zabaldua zuen.

Eiheralarren eta *Zaron*, Cornu erretorak paper batzu urratu zituen, baizik eta Xaho, Brie, St Gaudens eta Navarrot bezalako protestanteen alde bozkatzea, bekatu handia zela¹⁹².

Arzimizgarai Getariko erretorak kofesategian kontzeilu eskatzera gomiatu zituen bere herritarrek, Bazkokari jende gehienak kofesatzen baitziren¹⁹³.

Zuprefeta arranguratu zen apezek sudurra soberaxko sartzen zutela kanpañan.

Apezpikua hautagai zelako zurrumuruak ibili ziren, nahiz ez zen egia. Hari eman bozak beste zenbaiti eskas alabainan batzuren karkulen arabera¹⁹⁴: 10.294 bildu zituen halere, berria gezurtatua zuelarik.

Marrast, bizpahiru departamentutan aurkesturik, Tolosako deputatu izatea hautatu zuen eta bigarren bozkaldi bat izan zen hemen, ordaina hautazeko. Bigarren bozkaldi honetan, 40.000 baizik ez ziren joan bozkatzerat. Barthek irabazi zuen 13.000 bozekin. 7.300 egin zuen Xahok: Atarratzen 1.403, bigarrenak 48, Maulen 1.403/228, Garazin 821/199, Baionan 1.005/1.908. Bestetan aise gutiago. Kasik deus ez Biarnoan. Hastapeneko sukar hura eztatzen hasi zelakotz ote horrelako apaltzea ?

Arduradun andana bat erregeak izendatuak izanak ziren, errepublika sortu aintzin ; erregetiarrak ziren beraz, eta ez zituzten aldatu: auzapez, juje,....

Rien n'est changé. Les égoïstes et les frippons du régime déchu relèvent la tête avec presque autant d'insolence que sous le règne de Louis Philippe. Ils ont remplacé sur leur masque le nom de royaliste par celui de républicain. [...] L'arrondissement de Bayonne compte 52 communes ; combien de conseils municipaux ont été dissouts par les commissaires et sous-commissaires du gouvernement ? PAS UN. [...] Le citoyen Ledru Rollin doit nous comprendre

191. S 1848.5...

192. Ar 1848.5.9.

193. Ar 1848.4.18.

194. Me 1848.4.26 ???

et surtout se hâter d'agir s'il ne veut pas que les élections de ces deux départements soient faites sous la plus facheuse influence. Peut-être est-il déjà trop tard¹⁹⁵.

Ikusi dugu Donapaleun gutienez lehenagoko hautetsiak baztertuak izan zirela. Egia erran hango bereko gizonak eta ez suprefetak;

Nous avons signalé à l'époque des élections générales, la mollesse et la négligence de MM Nogué et Lereboure à exécuter les ordres du ministère de l'intérieur, leur persistance à maintenir en place la plupart des fonctionnaires de Louis Philippe et nous avons dit que cette conduite compromettrait gravement les élections de notre département. Plus tard nous avons formellement accusé le commissaire et le sous commissaire d'avoir fait traitreusement alliance avec les royalistes des Basses Pyrénées et de se servir du pouvoir qu'ils tenaient de la République, pour appuyer des candidatures ouvertement royalistes¹⁹⁶.

Nogue prefetaz irakurtu dugu ere ez zela denek bozkatzearen alde : *il repousse le suffrage universel et direct*¹⁹⁷.

Beste behin:

Son premier acte a été une insulte et une calomnie contre notre grande révolution de 92 et 93. Le commissaire de la révolutions de 1848 a maudit et renié sa glorieuse et féconde devancière ; il a parlé le langage des aveugles réacteurs de la restauration et nous nous sommes vu forcé, le lendemain de la révolution, de prendre contre lui, la défense de la révolution¹⁹⁸.

Lesseps Madrilén izendatua izanik, « ministre plénipotentiaire », hona zer idatzi zuten : *Lesseps représentant la République à Madrid ! Lui l'homme de Guizot et de Louis Philippe !*¹⁹⁹

Hardoy Kanboko auzapezaz diote *Son républicanisme de fraîche date*²⁰⁰.

Angelun auzapez izendatua izan zen Dotezac medikua, jadanik auzapez izana zelarik erregeren urteetan... eta martxo erditan petizio bat egina zutelarik gizon hori kanpo emana izan zedien²⁰¹.

Eta hau, ez ote da bera mintzo ?

Le conseil municipal de Bayonne **demande pour la seconde fois** au commissaire du gouvernement à Pau qu'il soit procédé à sa dissolution. Il a le sentiment intime de sa fausse position. Il ne représente rien²⁰².

195. S 1848.III.31.

196. S 1848.V.20.

197. S 1848.IV.28 ?

198. S 1848.IV.21.

199. S 1848 IV 22 ?

200. S 1848.IV.

201. Ar 1848.3.16, 6.13.

202. JdP 1848.5.7.

Baionako suprefeta izendatu zuten zenbait astez, esperientzia mikorik ez zuen 24 urteko Garat bat, Paristik etorria, notario idazkari izana.

Administrazioak ez zuen arras iraultzaren bide bera hartu beraz eta ondorioak agertu ziren hauteskundeetan. Iraultza-bidean, arrastak tinkatzen zituzten, boterea bazen lekutik.

Jendea alde zen bada eta frogarik handiena, Donazaharren ez zutela zergen apaltzerik ere eskatzen. Bakarrik, Donibaneako gazteluan erreximendu bat izan zedien, beren mozkinentzat erosle gehiago izateko!²⁰³ *Panem*.

Uztailean izan *herriko bozketaz* gauza guti dakigu. Xaho Baionako herriko etxean sartu zen bainan 1.723 bozetarik 722 baizik ez zuen bildu eta bigarren itzulian zen sartu, gehienak bezala funtsean²⁰⁴. Lehen ondorioak eskutan Xahok azpimarratzen du 33 auzapezetarik 11 lehenagoko haiek berak zirela bai eta 33 axuantetarik 12²⁰⁵.

Agorrilean *kontseilari nagusien* aldi izan zen. Xahok irabazi zuen airez aire Atarratzen, Dendaburu Bunuzeko notarioa eta Xahoren adiskide minak lholdin, bainan orokorki errepublikarrek galdu zuten: 40 hautetsietarik 13 ziren zinezko errepublikatzaleak. Renaud, lagunek otoiztua zutelarik, xantza guziak bazituelarik, ez zen aurkestu, jadanik deputatu, eta ez zituela bi karguak betan ongi eramaten ahal. Boutoeyek Baionako auzapez kargua utzi zuen arrazoi beraren gatik²⁰⁶.

«Bozka urte, gezur urte», ordukotzat: Parisen izan barrikaden putarrak honaradino heldu zirenean, zurrumurrua zabaldu zen, otsaileko zuhaitza eihartu zela eta Xahok 15.000 gizon bazituela prest, gerla egiteko, horietarik 400, Baionako gaztelua erasotzeko²⁰⁷.

Otsaileko berotasun hura osoki joana zen. Aments handiak eginak zituzten, bainan ororen buru gauza guti ikusi zuten aldatzen. 45 zentimokoa deitu zerga berri batek bazterrak haserretu zituen. Barnealdeko arazo larri bati ez zioten atera biderik ematen: oihanak zaindu behar zirela eta ardi eta behi debekatuak ziren oihanetan. Zer balio zuen ametzaren zurak? Ametz oihanak ziren behere alde guzietan eta hauek ere kabalei debekatuak. Iratin baziren bai pino eta pago ederrak, bainan biderik ez, zuren jausteko. Altea artzainek ez zitzaizketen utz ardiak oihanetan sartzerat. Beherago, ameztoietan ibiltzea debekatua zen ardi, urde eta behientzat, ezkurreen asetzen zirelarik. 10 libera pagatu behar zuten kontrabandan hartu aldi bakoitz.

Pabeko Kontseilu Nagusiak txostenak igorriak zituen Parisera 1839, 1844 eta 1846an, arazo horretaz mintzatzeko, bainan debaldetan. Xaho joanen zen berriz Parisera²⁰⁸ gaia aipatzeko honek ere Kontseilu nagusiarentzat txostenak egin ondoan²⁰⁹.

203. S 1848.III.26.

204. S 1848.8.3.

205. Ar. 1848.9.9.

206. Ar. 1848.9.19.

207. S 1848.7.25.

208. Ar 1848.4.22.

209. Kontseilu Nagusiko txostenak: 1848 (79-85 or), 1849 (79-85or), 1850 (56-57 or) edo Ar 1848.12.1.

La question foncière est grave, plus que la prefecture ne semble le croire et le ministre des finances nous semble ignorer sur ce point, certains droits que nous sommes chargés de lui faire connaître. Notre mémoire à ce sujet sera bientôt terminé²¹⁰.

Bainan pazientzia galdurik, jendeak oldartu ziren. Atarratzen lehenik 1848an maiatzeko 8an, Armendaritze ekaineko 28an²¹¹. Altzükün 1849ko primaderan, Amikuzen 1849an maiatzeko 31an, Muskildin 1850an otsaileko 2an, Donaixtin hazaroko 25an²¹² eta Donibane Garazin gero²¹³. Armada igorri behar izan zuten. Bidegarai Behauzeuko auzapeza eta Elgar Bitiriñakoa kargutik kendu zituzten. Bainan arrabozka egunean Bidegaraien alde bozkatu zuten egundainokotan Behauztarrek. Dendaburu lholdiko kontzeiliari nagusia preso eman zuten.

Eta gaurko moldean, zernahi iresterat ekarriek bakarrik sinets ez zitzaketen gauzak hitzemanak izan ziren : hala nola Amikuzen, harria, sua, kabalen kontrako eritasunen kontra asuratuko zituela Errepublikak!²¹⁴

Berantegi horiek denak lehen kartsutasun hura bizirik atxikitzeko.

6. LEHENDAKARI HAUTESKUNDEAK

1848ko abendoan, lehendakari hauteskundeak. Louis Napoleon, inperadorearen iloba, Lamartine olerkaria, Cavaignac jenerala, 1792an Sartarrak deportatuak zituen haren semea eta Ledru Rollin ezker muturreko ministroaren artean hautatu behar zen. Oraikoa ikusi zen nola itzulia zen haizea. Frantzia bezala Napoleonek irabazi zuen apuñatik 75.000 bozetarik 60.000 biltzen zituela departamendu mailan: (% 80). Euskalherrian berezitasunak baziren. Ledru Rollin errepublikarrak % 23a egin zuen non ba eta non ez, lholdiko kantonadan, 17 Baiona mendebalean, 15,5 Baiona ekialdean, 14,5 Donibane Garazin, 13 Maulen eta 12,1 Atarratzen. Denetan xapeldun Lakarra, gehiengoa eman zion alde bakarra. Biarnoan % 1ez petik zen.

Cavaignac-ek, hau ere errepublikarra, gehiengoa izan zuen Hazparne aldean % 59,5, % 37,5 egin zuen Ezpeletan, % 31 Donibane Garazin, % 32,5 Bastidan, % 29,5 Bidaxunen, % 28,5 Donibane Lohizunen.

Departamendu mailan % 80 egin zuelarik, Napoleonek % 60ez petik izan zuen beraz Hazpamen, bainan ere Baionan (gehiengorik ez zuen bildu: % 49,4), eta Donibane Garazin. Azken bietan, Xaho (Ledru Rollin-en aldekoa) eta Renaud-ri esker. Hau Cavaignac-en aldekoa, erdi gogoaren kontra hoberik ez zelakotz: *Renaud n'est pas pour Cavaignac, mais énergiquement opposé à Napoleon adopté par les ennemis de la République*²¹⁵.

210. Ar 1848.5.16.

211. ADPA 2U 936.

212. Ar 1848.4.6, 4.9.

213. ADPA 2U 937, AR 1848.4.30 ; 6.13. Gai hau tratatua dugu *Lohilakat, ipuia eta historia*, Congrès International « Antoine d'Abbadie », Eusko Ikaskuntza 1998, 117-133 or.

214. ADPA M3/4, BB 30/364-1.

215. Int. 1848.11.16.

Hazparden ez dut ikusten nork izan zuen horrelako eragina Cavaignac-en alde. Lardapide Aiherra Uhagunekoak ote? Bainan Aiherra, Bastidakoa zen.

Lapurdikoko deportazioak honen aitak eginak zituelarik 1792an, probintzia honek dio boz gehiena eman Cavaignac-eri. Saran berean, 400 bozetarik 112 bildu zituen jeneralak: % 28a! Alta, kanpaina denboran oroit arazia zuten aitaren balentria²¹⁶. Jakin arazi ere zuten nola 1793an, auzitegiak libratzea manatu bi Euskaldun, gau hartan berean gillotinarazteko manua eman zuen²¹⁷. *Cavaignac est le fils d'un proconsul qui a persécuté la religion*²¹⁸.

Berak gogor egin zuten ekainean langileak milaka oldartu zirelarik Parisen « ateliers nationaux » delakoen gelditzea erabaki zutelarik. Affre kardinala, Parisko apezpikua, barrikadetan izan tiro batek hil baitzuen, jeneralaren soldadoen gain joan zen. 10-12.000 hil izan zela irakurtu dugu biziki handia baita²¹⁹. Horietan 4 jeneral. Xifre segurragoa 6/700 eraman zituztela preso batere auziperatu gabe, batzu Aljeriara (populatu behar zen kolonia berria) besteak Kaienera²²⁰. 3.000 kanoi, ukaldi eta 2 milioi tiro eman zituzten²²¹. Cavaignac-ek zituen lehenago harpe batean sartu ehunka arabeak, Aljerian eta sua pizturik, kearekin ito²²². Laguntzale zuten Lamoricierrek²²³. Lehena, gobernuaren buru eman zuten ekain horretan eta hilibete horretako gertakariei buru egiteko ez zela gai izan leporatu zioten. *Cavaignac n'a pas réussi au gouvernement*²²⁴. Langileekin akort zirenak okaztatuak izan ziren, haien mundua zanpatua izan baitzen.

Bestek, errepublikaren gain eman zituzten nahaskeria guziak Ledru Rollin ekartzen zutela hobendun, barne ministro baitzen eta ezker muturrekoa, oldartu zirenen aldekoa: *La candidature de Ledru Rollin me paraît une folie, un rêve, un cauchemar qui n'a pu entrer que dans des cervaux malades*²²⁵.

Napoleon izena entzutearekin, zenbaitek uste izan zuten lehenagoko inperadore hura zela hautagai. Louis Napoleon bera, osebaren mitoaz baliatu zen. Dendaburuk bere sustengatzaleetan emanik Landibarreko Pagola axuantaren izena, honek protestatu zuen « *En tant qu'ancien soldat de l'empereur, je ne me laisserai pas faire.* » Eta dirudun handia zelako fama baitzuen, zergak azkarki ttipituko zirela uste izan zuten!

216. Ar. 1848.12.2.

217. JdP 1848.XI.25.

218. Me 1848.5, 7, 8, 21/12.

219. Jdp 1848.7.1.

220. S 1848.7.1.

221. JdP 1848.7.11.

222. On pétarda l'entrée de la grotte et on y accumula des fagots de broussailles. Le soir, le feu fut allumé. Le lendemain quelques Sbéahs se présentèrent à l'entrée de la grotte demandant l'aman à nos postes avancés. Leurs compagnons, les femmes et les enfants étaient morts ». Charles Andté Julien, Histoire de l'Algérie contemporaine, PUF, Paris, 1964, 321 or.

223. Lamoricière demeure de tous les grands chefs de l'Afrique, celui qui se montra le plus inhumain. C.A. Julien, 316 or.

224. Int 1848 11.16.

225. Int 1848.11.16.

C'est le besoin d'ordre et de tranquillité qui a fait tourner les regards vers M.L. Bonaparte. [...] Dans le Pays Basque on a le sentiment religieux profond. On répond à toutes les objections à cette candidature que son oncle a rétabli la religion, qu'il a relevé les autels²²⁶.

Xahorekin nahi bezain adiskide izanik ere, Bardozeko erretoraren obra nagusietarik bat izanen da: *Napoleon I.*, inperadorearen goresteko idatzia.

Horra zerk ekarri zuen Napoleonen garraipena. Atarratzeko kantonadan berean, Xahoren erreinuan, Napoleonek 1.300 egin zuen eta Cavaiganac-ek 75! Renaud-ri hobeki jaraiki zitzaizkion Garazin: 2.158tarik 1.111 Napoleoni, erdia eskas. Gutiengoa Napoleonek Baionan ere: % 48,3, (Cav: % 31, LR % 17,9, Lamartine % 2,8), Hazpamen; % 36,5 (Cav. % 61,4, LR % 2).

Erreferendum honekin erran dezakegu otsaileko amentsak galduak zirela, nahiz deputatu hauteskundeak izanen ziren oraino, denetan hoberenak Xahorentzat. Honek hastetik senditua zuen haizea norat ari zen. Iraultza hasia baizik ez eta apiril ondarrean idazten zuen: *La République a vaincu en février mais elle a mal profité de sa victoire. Cette fois encore, elle est sur le point d'en perdre les fruits*²²⁷.

7. DEPUTATU BERRI

1849an egundainokotan deputatu hauteskundeak. 1848koak Konstituzioa egiteko izendatuak izanak ziren, orai deputatuen lan normalari buruz. 10 izanen dira departamenduan.

Ikusirik Biarnoan ez zuela arrakastarik ukan lehen bi aldietan, Xahok kanpaina egin zuen serioski, alde horretan. Nay hirira zoalarik zaldia anbalaturik, karrosatik jauzi egin zuen, gaizki erori eta ezagutza galdurik altxatu zuten. Hil zorian zelako berria hedatu zuten kasetek, bere kalitate handiak gorai patuz. Ez baitziren egunetik biharrera jakiten berriak garai haietan, sendatu zela ez zuten jakin ainitzek eta bozka egunean... ez zioten hil bati eman botua. Dena den, 127 boz baizik ez zitzaizkion falta izan pasatzeko.

10 deputatuetarik bat baizik ez zen errepublikarra aldi honetan, Renaud. Otsaileko azken putarrak zirelako seinale. Etxeberri 3. zen (39.799), Larrabure 6. (35.356), Xegarai 7. (32.976). 1.848ko deputatuetan, Boutoey Baionako auzapeza 64.200tarik 18.600tarat eroria zen. Baionan berean Xaho lehen 1.549 bozekin eta Renaud bigarren 1.435kin.

Gero, bozkatzaileen kopurua apalduko du lege batek, heren batez Euskalherrian: % 57,5ez Baionan, % 43z Donapaleun eta % 38,4ez Garazin! Kontseilari nagusiak beren denbora egin ondoan beren karguan utziko zituen beste lege bat egin zuten. Xaho eta Dindaburuk demisionatu zuten hori ezin onartuz. Bigarren errepublikak azken hatsa emanen du inperadorearen aldeko erreferendomarekin. Gero kanporatu zituzten Xaho, Renaud eta Dindaburu besteak beste.

226. Int 1848.11.16.

227. Ar 1848.4.30.

Xaho ez bazen ere orai zenbaitek nahiko zuketen ateo eta antiklerikala, garai haietako aintzindari zen alde horretarik. Biarnoan ibili zelarik kanpaña egiten, galdetu zioten Jainkoa sozialista ote zen. Errepostua: gure xeheteria eta alerdikeriak baino gorago zela.

Beste galdera bat, heian Jesus errepublikarra ote zen. Errepostua: baietz bai, eta gizonetan handiena; alde guzietan libertatearen zuhaitzen landatzen ari baitziren, behin ere izan zen libertatearen zuhaitzik ederrena, kurutzea izan zela. Erlisioneetaz, hona zer idatzi zuen behin Xahok: *Quant à la religion, il en faut. Je serais fort embarrassé de vous prouver ici laquelle est la meilleure ou s'il y aurait une religion préférable à celles qui existent.*

Edo beste hau:

Pour un homme qui croirait que Jesus Christ est Dieu, je trouve bizarre d'entendre demander s'il était ou s'il est socialiste. Le Dieu tout puissant, le créateur de l'univers et des mondes, l'intelligence éternelle est, à mon avis, infiniment au dessus de nos petits faiseurs de systèmes, socialistes et autres. Relativement à Jésus Christ, j'ai répondu qu'il avait été un parfait républicain, victime d'un dévouement héroïque et sublime, le plus grand des hommes, pas autre chose et pas surtout communiste et phalanstérien. Je pourrai ajouter que depuis l'invasion de la barbarie celtique et l'établissement de l'esclavage romain, le plus bel arbre de la liberté planté en Orient a été la croix de Jésus Christ²²⁸.

8. HONORE DINDABURU

Ez gara Xahoz mintzatzen ahal bere adiskide mina eta politika kidea zen Honore Dindaburu Bunuseko notario eta auzapeza, bai eta lholdiko kontseilari nagusiaz bi hitz erran gabe. Kontseilu nagusirako pasatu zen lehen itzulitik beste hiru garraikideak aintzindurik. Igande arratsalde batez, Bunuzeko elizan zen Berdoly, hau bere aitarekin, besperetan, auzapez gorria bezperetan ibiltzen baitzen! Bezperak bururatu eta katixima egiten zuen apezak komunionekeo haurrei. Sankristian aldaturik aldare aintzina itzuli zen jende guziak hor zeudela.

Bere katixima liburua etxen ahantzia eta haur bati galdetzen dio berea, bainan ez zeukan hor. Bigarren bati. Hirugarren bati eta bihi batek ez. Klaberrari, eta honek ere libururik ez. Hasten da beraz galde errepostuka lehenagoko moldean.

–Noiz joan da Jainkoa zerurat?

Haur bihi batek erhirik ez altxatzen;

–Hik, Pettan?

Pettan zutitzen da bainan begiak ahoa bezain zabal, hitzik ez ateratzen.

Gexan?... Extebe...Anita...? Mailuxa?

228. Me 1848.5.23.

Denak berdin mutu. Ikustearekin haurrek ez zutela erreposturik ematen; Berdolyk egiten dio galerietarik.

–Galdea gaizki egin duzu? Noiz joan zen zerurat Jesus, behar zenuen galdetu, eta ez Jainkoa.

Noiz ikusi da elizan girstino bat kontseilu ematen gora gora apezari? Harritua, sesitua gelditu zen apeza, ixil ixila, eta sankristiara itzuli. Dindaburuk zutiturik erran zuen elizkizunak burratuak zirela. Kurutzearen seinalea eta belaunkristia eginik atera zen, bai eta Berdoli eta gero besteak. Berdoli joan zen sankristiara, Lapoublekin ibilia baitzen eskolan. Bainan honek motz utzi zuen.

Kanpoan kalapitan hasi ziren auzapezarekin. Judas iduria zela erran zion Ezpelet batek. Dindabururi gaitzitu, muturreko bat eman zion eta lurrera bota. Zutiturik, aterkina eskuan auzapezari buruz abiatu zen jo nahi izan balu bezala. Honek orduan makil ukaldi bat eman zion eta kolpeka hasi ziren, ez baita pollit nor nahirentzat, are gutiago elizatik ateratzen ari den auzapez batentzat, gainerat kontseilari nagusi delarik. Berexi zituzten.

Bainan parada ederregia zen ez baliatzeko. Ezpelet medikura joan zen. Hau, Apalo, zuria izanki. Sangraldi bat egin zion, on bezainbat kalte egin baitziokeen ‘kolpatuari’. Bainan gero baliagarri izanen. Alabainan Donapaleuko auzitegira joan zen medikuaren ageriarekin.

Donapaleuko jujea, komisarioa eta prokuradore Bunuzen izan ziren ikerketak egiten, Roques sendagilea ere berekin zeukatela, bainan honen arabera ez zuen gehiagorik Ezpeletek. Hirugarren bati dei eginik, hau ere xuria, lehenaren aldera egin zuen honek. Auzitegira deitu zuten Dendaburu bigarren huts bat leporatzen ziotela: elizkizunak ez zituela normalki iragaitera utzi, hau ere legearen kontra baitoa. Prokuradoreak bi hila-bete presondegi eta 50 libera damudomaia eskatu zituen. Hilabete bat eman zioten eta izuna.

Pabeko auzitegira dei egin zuen. Han kondena berbera eman zioten eta hona gure kontseilari nagusia Donapaleuko presondegian, ohoin eta mozkorrekin. Bere egonaldia bururaturik apirileko 24an atera zen. Harridura. Kanpoan zai zeuden bost gazte galtza zuri, poneta eta barneko motz gorritan, bi xirribita ondoan. Eta jendeketa ederra. Lerroan joan ziren libertatearen zuhaitza landatua zuten plazara, dantza jauziak eman presoaren ohoretan. Burutzeko, txirribitek eta atabalak eman zuten martzellezaren airea. Kasketadunek jakin eta hurbildu. Ezin onetsia zela. Auzitegiko erabaki baten kontrako manifestaldia zela. Bainan joan ziren.

Larزابaleko bide kurutzean berrehun bat jende presoaren beha, gehienak Bunuze eta Donaixitikoak, zenbait egun lehenago oldartu baitziren hauek ere eta gaizki pasatu jandarma eta soldadoekin. Denak hasi ziren oihuka *aupa Dindaburu. Aupa errepublika. Aupa gorriak.*

Karosatik jautsirik Dindaburuk baso bat arno pagatu zion baktzari ondoko ostatuan. Jandarmeria zenbait urratsetan eta, leihoen gibeletik so zeudezkeen, bainan zer egin? Gazte guziak makilak eskuan jinak ziren! Bi lerrotan emanik, bandera beltza aintzinean, lagundu zuten karrosa Bunuzeradino.

Ez zen horretan bururatu. Kolpeena baizik ez zen lehen auzi hori, Elizkizunei traba egin zielako akusazioa gelditzen zen. Donapaleuk Berdoly kondenatu zuen hilabete bat presodegirat eta Dindaburu xuri utzi. Baina prokuradoreak Paberat dei eginik han, seinatuta egun presondegi eman zieten.

Hirugarren auzi bat izan zen oraino: Lapouble apezari ez ziolakotz behar zen errespetua erakutsi. Beste zortzi egun bildu zituen ehun liberako izunarekin. Hilabete bat eta erdi presondegi eta 250 libera orotara.

Bestalde auzapez kargutik kendu zuen prefetak, Mauleko suprefeta zen Schilt garaztar suprefeta errepublikatzaileak eskaturik. Iduriz bien arteko eztabada baten ondorioz²²⁹.

Dindaburu aldekoetarik ere Larralde Heletako apeza eta hango bereko errienta. Larraburu. Hau eskolatik bota zuten errepublikarren alde agertu zelakotz bozka denboran eta apezaren adiskidea zelakotz, denek zekitelarik zein ziren apezaren ikuspegi politikoak *le curé fort douteux en politique*.

9. LARRABURU ERRIENTA

Xuriketak izan ziren errientetan eta botaiak izan zirenekin elkartzunez bere demisioa eman zuen La Reolen inspektore zen Artxuk, aldaketa izana zuelarik Euskalherriat. Eskola normala eginik Irulegira izendatu zuten lehenik Larraburu eta biziki errient ona zelakotz Heletara igorri 1847an. Eta hona non gorrien alde agertu zen:

Il embrassa avec ardeur les idées les plus avancées de la révolution. Il devint dans le canton d'Iholdy qu'il habite, l'agent actif des révolutionnaires exaltés, de Chaho, de Dindaburu, de St Gaudens, de Renaud... Il est parvenu par ses manoeuvres à éloigner du scrutin les deux tiers des électeurs de la commune... Il trouve un point d'appui dans le maire dont nous attendons tous les jours la révocation, et même dans le curé, fort douteux en politique.

Eskolatik kanpo eman zuten 1852an, auzapez, apez, uxer, herrigizon eta fabrikakoek honen alde egin petizoaz kondurik hartu gabe.

Hona deputatu lehen bozkaldiko ondorioak, ezkerreko zutabearen orokorki, denentzat. Renaud eta Xaho gorrientzat bai eta Etxeberri zuriarentzat kantonamenduka ere eman ditugu. Xahok botu gutiago bildu zuen Baigorri, Bidaxune, Ezpeleta, Hazparne, Bastida, Donibane Lohizune eta Uztaritzen.

229. S 1848.6.20.

